

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, abenduak 29



Urteari errepassoa



ETE

Zorionak!!



arraindeaia

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA



*1996 urte berrian
zoriontsu izan daitezela
opa diegu herritar gustiei.*

Lilura

Edertze Institutua

*Zorionak eta
urte berri on!!*

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Mariji Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

aurkibidea


1995KO ABENDUAK 29 • URTEARI ERREPASOA • ALE BEREZIA

**6****hilez hil**

Urtean zehar nabarmendu diren gertaerak hilez hil kontatzen dizkizugu, 24 orritan.

24**berriketan**

1995ean nabarmendu diren herriko pertsonaiak elkarrizketatu ditugu. Javier Retegi, Mikel Zubimendi, Rafa Herran, Mikel Laskurain eta Francisco Alonso ekarri ditugu Berrigarako orrialdeetara.

**5****ikuspuntua**

Miren Azkarateren iritzia, Anaje Narbaiza, German Muruamendiaraz, Ainhoa Agirreazaldegi, Itxaso Azkarate eta Gerardo Puenterenak ere jaso ditugu urtekarian zehar.

1 9
9 5

abenduak 29 • BERRIGARA • urteari errepasoa

Oxirondo Azoka BERGARA

☎ 76 45 90 / 76 16 01

IKUZ C. B.

I K U Z T E G I A

**ETXEZ-ETXEKO
ZERBITZUA**

ZURE ARROPA GUZTIA

GARBITU ETA

LISATZEN DUGU

***Jatetxeak, hotelak, elkarteak,
egoitzak, lantegiak e.a.***

■ **JATETXE, HOTEL, ELKARTE
ETA EGOITZAK**

Zure arropa guztia garbitu eta lisatzen dugu. Azkartasuna eta kalitatea dira gure zerbitzuaren markak. Kontsulta iezaguzu. Etxez-etxeke zerbitzua.

**OHIZKO
GARBIKETA ETA BUSTI
GABEKOA**

■ **LANTEGIAK**

Laneko arropa garbitu eta tratatzeko zerbitzu berezi bat sortu dugu. Kontsulta iezaguzu. Etxez-etxeke zerbitzua.

■ **OHIZKO GARBIKETA**

Era guztietako jantziak garbitu eta lisatzen ditugu. Bereziki: buruzi, edredoi, nordikak, gortinak (bere tamainuaren eragozpenarengatik etxeke ikuzgailuan garbitu ezin daitezkeen jantziak bereziki). Honez gain, etxeke arropak garbitu eta lisatzeko sekzio berezia dugu. Ekar ezazu zure arropa eta ordu gutxira prest edukiko duzu.

■ **BUSTI GABEKO GARBIKETA**

Lana, ante, larru, napa eta abarrezko jantzien lehorreko garbiketa edo tintatzea. 48 orduetan prest. Alfonbrak aste batean.

LAISTER ZURE ZERBITZURA!!

Berri tristeak

MIREN AZKARATE



Urtearen amaiera balantzeak egiteko ordua izan ohi da. Aurten, Bergaran, ezinbestean UNEDen gertatuaz hitz egin behar da; eta, bereziki, EKD, euskararen departamentuaren egoeraz. Berriak, zoritxarrez, ez dira pozik egotekoak; ez da gustukoa horrelakoak kontatu beharra, "Urte Berri Zorionsua!" ezpainetan dugun bitartean. Baina egoera halakoa da, eta, zer pentsatzen dudan adierazi nahi nizueke.

Hasteko, aitortu behar dut ez dela erraza gauzak nola gertatu diren jakitea, beharbada ez ditut xehetasun guztiak ezagutuko; egongo dira akaso ezagutzen ez ditudan arrazoiak. Dena dela, ditudan datuen arabera iritzia emango dut, bati eta besteari entzundako argumentuez pentsatzen dudana azaldu.

1. Diru gutxiago izatean, Diputazioak erabaki omen du bere-bereak dituen ardurei bakarrik erantzutea. Bale, zentzuzkoa izan daiteke! UNEDek, guztiok dakigun bezala, unibertsitate-mailako zerbitzua eskaintzen du; beraz, ez litzateke Diputazioaren ardura-pekioa izango. Konforme!

2. Bestetik, Pete Marwick enpresak egindako auditoriak esan omen du UNED "lardimentsionatua" dagoela; hau da, egin beharko lituzkeen baino gauza gehiago egiten dituela. Eta gauza horien artean daude, antza, Euskal Kultur

Departamentuaren eginkizun asko. Ez dakit hemen hain konforme nagoen. Informazio gehiago beharko nuke, baina, entzun dudanez, UNEDek dituen ikastetxeetan ekintza osagarriak egiten omen dira.

3. Ez dago esan beharrik zein ga-

rrantzitsua izan den Bergarako UNEDek izan duen lekua euskal kulturaz azken 20 urte hauetan. Euskaltzaindiaren D eta B tituluak ateratzeko lehenengoetako ikastaroak antolatu zituen; ni neu, eta beste asko, horraxe joaten ginen zapatuero-zapatue-ro B titulua eskuratu nahian. Gero ere segitu dute EGArako ikastaroak antolatzen; baina ez dio horrek bakarrik eman berezitasuna. Benetako ahalegina egin dute ikastaro berriak eskaintzeko; EGA lortu ondoren jendeak sentitzen zuen hutsunea betetzeko, euskara lantzen jarraitzeko, modu askotako ikastaroak antolatu dituzte. Ikastaro horietan, gainera, ditugun irakaslerik famatuena bildu izan dituzte; hizkuntzaren munduko batzuk aipatzekotan: Patxi Goenaga, Beñat Oihartzabal, Lourdes Oñederra, Xabier Mendiguren, Juan Garzia...

4. Eginkizun garrantzitsua izan du EKDK; badu, oraindik ere, aukerarik ematen bazaio. Eztabaida daiteke UNEDen barruan kokatu behar den jardun hori. Ez dakit; akaso beste nonbait kokatu beharko da. Baina nik behintzat ez dut inolako dudarik behar ditugula horrelako ekimenak, ezin dugula horrelako talde bat kalean laga. UNED ez bada leku aproposa, beste bat topatu beharko zaio. Hobeto esan, orain arte UNEDen ardura eduki dutenek arduratu beharko lukete leku apropos hori topatzeaz; euskaltegi berezi bihurtzeko gestioak eginaz, edo beste edozein modutan. UNEDen bertan utziaz, eta diru-iturri berriak aurkituaz? Soluzioak egon daitezke, borondatea badago. Sinistezina iruditzen zait horrenbeste lan egindako jendea kalera bidaltzea, "etorkizuna zeuek konpondu!" esanaz. Urte berriak ekarriko ahal du erabaki zentzuzkoagorik kontu honetan!

"Eginkizun garrantzitsua izan du EKDK; badu, oraindik ere, aukerarik ematen bazaio"



ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA

SFK

19
95

abenduak 29 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa



Ruandaren aldeko espedizioa Bergarara itzuli zen

Hego Euskal Herria alderik-alde zeharkatu ondoren urtarrilaren 11n itzuli zen Bergarara Ruandaren aldeko espedizioa. Julio eta Eneko Eizagirre, Patxi Maestro, Arturo Fernández eta Axen Garitanok 1.000 kilometro inguru egin zituzten hilabete batean txakurrez tiratutako trineoekin. 30 bat herritan parada egin zuten eta 4 milioi pzta. inguru bildu zituzten, 10 milioi lortzea espero bazuten ere. Urtarrilaren 11an arratsaldeko 6etan itzuli ziren San Martin plazara herritarren txalo artean.

ESAN ZUTEN...



AXEN GARITANO

"Gabon Zahar egunean solomo bokadilo bat kalimotxoarekin afaldu genuen"

RUANDAREN ALDEKO ESPEDIZIOKOA

IÑIGO IDARRETA

"Pilotaren mundua hankaz gora dagoela ikusten dut. Egia esan harrituta nago"

BERGARAKO PELOTA ENPRESAKOIA



J. LUIS BIKUÑA

"Jon Idigoras, politikatik kanpo, gizatasun eta samurtasun haundiko gizona da"

KAZETARIA



Udaletxe atzealdean adokina jartzeko lanak

Urtarrilaren 23an hasi ziren Udaletxearen atzealdean adokina jartzeko obrak. Olaso Dorrea eta San Pedro parrokia bitarteko zoruan adokina jartzeko egitasmoak 12.600.000 pzta.ko aurrekontua izan zuen. Obrak zirela eta, Artekalean gasa sartzeko aprobetxatu zen. Adokina jartzeko obra hauek, etorkizunean alde zaharrean egin nahi den itxuraldaketaren oinarri izan ziren.

PINTURAS BERGARA

PB

Xrannerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

M O T Z E A N

**JARRAIK DEITUTAKO
MANIFESTAZIOA**

Errege bezperan Jarrai gazte erakundeak deitutako manifestazioa egin zen herriko kaleetan Ertzaintzaren aurka protestatzeko.

**ESKULAN IKASTAROAK
BERRIZ ERE MARTXAN**

Udalak antolatutako eskulan ikastaroa berriz ere martxan jarri zen urtarrilaren 16an, bi hilabetetan etenda egon ostean. Kontratututako monitorea baldintza pleguetan eskatzen zen euskara mailarik ez zuelako suspenditu zen ikastaroa.

**MAITE GURIDI PRESOARI
ONGI-ETORRIA**

4 urtez espetxean egon zen antzuolarrari ongi-etorria egin zitzaion San Martin plazan urtarrilaren 29an. Jaengo presondegitik irten zen.

**HARITZ BERRAONDO
PELOTA TXAPELDUN**

18 urteko pelotari antzuolarrak DVko txapelketa irabazi zuen Unai Apeztegiarekin batera urtarrilaren 8an Zaurautzen.

**IÑIGO IGARTUA
HIRUGARREN ESPAINIAKO
TXAPELKETAN**


Urtarrilaren 8an Zamoran jokatutako Espainiako ziklokross txapelketan hirugarren postuan sailkatu zen Francisco Plá eta Abel Maçeiraren atzetik.

**Jubilatuetak antzerki taldea Euskadi Irratian**

Jubilatuetak antzerki taldeak Lurdes Iriondoren "Martin arotza eta Jaun Deabrua" ipuinean oinarritutako 25 minututako lantxoa eskaini zuen Euskadi Irratian. Antzerki ikastaroa eman zuten Txetxu Altolagirre

legazpiarrak prestatu zuen gidioia. Jubilatuetako antzerki taldea argazkian agertzen diren Maria Pilar Larrañaga, Anita Suinaga, Rosario Garitano, Maria Lizarralde, Maite Aranburu eta Juli Urkizuk osatzen zuten.


P R O T A G O N I S T A K

**JABIER RETEGI**

Industria sailburua. 48 urte ditu, perito industrial da eta aurretik industria eta hezkuntza sailburuorde eta Ikerlaneko presidentea izan zen.

ENEKO OREGI

Hezkuntza sailburuordea eta Arabako EAko presidentea. Ekonomia lizentziatua da eta IVAPEko itzultzaile zerbitzuko zuzendari ohia.

**LUIS LASKURAIN**

Beart Bergarako artisten elkarteko presidentea. 44 urte ditu, afizioz pintorea eta lanbidez aparejadorea. Suradesa erakundeko buru.

1 9

9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari erreparasoa



Urte berri on

GAZTELU**BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

19
95

abenduak 29 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa



Hondakinen gordailu berria San Kristobalen

San Kristobalgo hondakinen gordailu alternatiboa zabaldu zen otsailaren 1ean. Bergara, Antzuola eta Elgetako biztanleek erabiltzen dute. Bertan, hondakin inerteak, metalezkoak, zurezkoak, paper eta kartoia, plastikoa, beira, mota guztietako pilak edota akumuladoreak jasotzen dira. 8 kontenedore jarri ziren zaborra behar den bezala sailkatzeko.

Maltzaga-Urbina proiektua

Debasa erakundearen Maltzaga-Urbina autopistaren aurreproiektua erakusteko karpa ibiltaria izan genuen Bergaran. Beheko estazioan jarri zen eta herritarrek autopistari buruzko planoak, bideoak, panelak edota maketak ikusteko aukera izan zuten.



ESAN ZUTEN...



MAITE GURIDI


"Hitz egin behar da aurrerapausoak emateko. ETAK gelditu behar du, baina ez berak bakarrik"

PRESO OHIA

LUIS UGALDE

"Venezuelan errez samar egiten zen dirua eta horrek korrupzio handia ekarri du gobernuan"

JESUITA



Don Serafin Esnaola, Jose Ramon Iturbe eta Amaia Samaniego, 1994ko kirol sariak banatzeko Kultur etxean egin zen ekitaldian.

1994ko kirolaririk onenak aukeratu ziren

Amaia Samaniego eskubaloi jokalaria 1994ko kirolaririk onena aukeratu zuten Berrigarako irakurleek. BKEko Eskubaloi saila, berriz, elkarterik onena izendatu zuten herriko kazetariak eta Serafin Esnaolak, azkenik, urtetan kirol munduan egindako lanagatik sari berezia jaso zuen.

URTE BERRI EGUNEAN ITXITA

URTE BERRI ON!!

Mekolalde Taberna

Mekolalde auzoa z/g

☎ 76 50 18

M O T Z E A N

**SAN BLAS JAIK OSPATU
ZITUZTEN MURINONDON**

Otsailaren 3an, San Blas eguna, ohikoa den bezala, opilen bedeinkapena egin zen Murinondo auzoan. As-tebukaera osoan zehar, berriz, hainbat ekitaldi antolatu ziren San Blasak ospatzeko.

SANTA AGEDA ESKEAN

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera, Santa Agedaren omenezko kantuak entzun ziren herriko auzo eta kaleetan zehar.

**IBABE ETA ETXANIZ
PRESOEI OMENALDIA**

Gartzelan 15 urte bete dituzten Iñaki Ibabe eta Jose Mari Etxaniz preso bergararren aldeko omenaldi astea antolatu zuen Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak. Besteak-beste, mahaingurua, erromeria eta manifestazioa antolatu ziren.

**13 MILIOI HAURENTZAKO
JOLASTOKIAK JARTZEKO**

Udalbatzak 13 milioi pza.ko aurrekontua onartu zuen herriko hainbat tokitan haurrentzako jolastokiak jartzeko.

IBAI-ERTZEKIKO KANPAINA

Deba ibaiaren ertzen berreskurapena bultzatzeko sensibilizazio kanpainari ekin zion Mendia Bizirik-ek. Basa-ahateak askatu zituzten erreka ertzetan.

**Maider Osa amodiozko gutunetako irabazle**

Maider Osa arrasatearrak irabazi zuen Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa "Lekaiame batek apaiz bati" izeneko kartarekin. Izaskun Arziniegak bigarren saria eta bergarar onenari zegokiona eraman zituen;

Julen Agirrebeña bergararrak, irakurlearen saria; Kemen Uranga ondarrutarrak akzesit bat eta Imanol Sorondo hernaniarrak epaimahaiaren aipamen berezia merezi izan zuten. Sariak San Balentin egunean banatu ziren.



Karnabal, karnabal... Urtero moduan mozorroa jantzi eta kalera irten zen herritar mordo bat zapatu eta martitzen karnabaletan. Bergarako dendarien elkarteak lehiaketa antolatu zuen eta jubilatuen etxean ere hainbat ekitaldi antolatu ziren, baina Aranzadi ikastolako haurrek ez zuten kalejirarik egin.

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa

Elektrodomestikoak

Matxiategi, 3
☎ 76 12 22

HERRAN ETXEA

*Urte berri on eta zoriontsu
bat izan dezazuela*

Sukalde altzariak

Matxiategi, 4
☎ 76 37 53

"URTE BERRIARI PAKEA ESKATZEN DIOT, BESTERIK EZ"

Javier Retegi bergararak urtebete darama Eusko Jaurlaritzako Industria sailburu modura. Retegi itxaropentsu azaltzen da bertako industria, arrantza eta nekazaritzaren etorkizunari begira.

JAVIER RETEGI, Industria sailburua

"Enpresn gestioari ematen diot nik lehentasuna"

Zein da urtebete honetan egindako lanaren balorazioa?

- Lan gogorra izan da. Kontutan izan industria, nekazaritza eta arrantzako arloetan lan egiten dugula eta lan esparru oso zabala dela. Hala ere, lan zaila izan arren, lehen aipatutako hiru arlo horiei begira itxaropentsu nago.

- **Labur-labur, zelan ikusten duzu arlo bakoitza?**

- Industriak azken 10 ur-

teotan aldaketa asko jasan behar izan ditu Europara zabaldu ahal izateko. Produktibitate aldetik asko aldatu da eta gaur egun indartsu dago kompetibitatean sartzeko. Hala ere, oraindik gehiago indartzea falta da.

Arrantzari dagokionez, aurtengoa urte ona izan da. Hala ere, arazo estrukturalak hor jarraitzen dute eta gure lehendabiziko asmoa hori gaingitzea izango litza-teke.

Eta nekazaritzaren barruan, azkenik, arlo ezberdinak daude. Ardoa, esate baterako, oso ondo joan da eta esneak (hemen garrantzi handia daukana) bultzada handia izango du Iparlateko akordioarekin. Galego eta euskaldunen artean Lactaria Española zena erosi dugu eta hemengo esneak indar handia hartuko du.

- **Zein da zure departamentuaren kezka nagusia?**

"Jaurlaritzaren industri politika berrian esfortzu haundia egiten da langabezi tasa jeitsi ahal izateko"

- Langabezia, duda barik. Langabezi tasa %24tik %22ra jeistea lortu da. Azken batean jeitsiera hori lortzea izugarria izan da baina aurrera begira ez da ikusten langabezi tasa asko jeitsiko denik. Otsailean legebiltzarrean eztabaidatuko den industri politika berriaren (1996-99rako egina) esfortzu haundia egiten da langabezi tasa jeisteko.

- Zein litzateke plan horren ardatza?

- Langabezia da gure arazorik nagusia eta hori konpontzeko proiektu berri asko bultzatuko dira Garapen programari esker. Aurten 1.500 milioi bideratu dira 22 enpresa bultzatzeko eta bakoitzean 80-100 lanpostu inguru sortu dira. Programak, enpresak bultzatu behar dira eta orain daudenak jostore eta konpetibitate aldetik indartu. Epe motzera ez dago esate-

rik langabezia jeitsiko denik baina 4 urte barru langabezia %18ra jeisteko asmoa daukagu. Horrekin pozik geratuko nintzateke.

- Estatu mailan, Industria sailak badu indarrik?

- Ahalmenak haundiak dira. Konpetentzia mailan pare bat gauza falta dira, hemen kokaturik dauden Estatuko enpresak (Astilleros Españoles, Babcock & Wilcox... etab.) adibidez gure ardurapean izatea. Hala ere, eskumen zabalak ditugu Jaurlaritzan politika on bat egiteko.

- Bergarara etorri, zein etorkizun ikusten diozu Bergarako Industrialdeari?

- Dagoeneko 28-30 industrialde dira martxan eta garrantzi haundia izan dute. Kokapen txarra duten enpresentzat oso ona da honelako leku batera joatea.

Bestalde, sarritan enpresa horiek txikiak izaten dira, gaizki kokatuta daudenak. Kokapen hobeak indartu egiten dituela frogatu da. Tokirik ez duten enpresei ere erreztasunak ematen zaizkie bertan kokatzeko eta horrela samurtu egiten da esperientzia berrien agerpena.

- Zein da etorkizunik onena duen sektorea?

- Sektoreen teoriarik ez dut asko sinisten, izan ere zahartutako sektore asko berritu egin daitezke. Hor dago Beasaingo CAFen kasua. Teknologia berriak sartuz puntako enpresa da gaur egun eta hor ikusten da gestio on batekin edozein arlotan izugarritzko garapena lor daitekeela. Aeronautika, esate baterako, ez da sektore indartsua baina hemen izugarritzko indarra hartzen ari da, automobilen ere hemen oso ondo doa... eta horrela beste asko. Sektoreei baino gehiago gestioari ematen diot lehentasuna eta Bergaran ere hor dira Mayc eta Lazpiur enpresak hori frogatzeko, biak ere indartsu ari baitira.

- Zer eskatzen diozu urte berriari?

- Pakea, besterik ez.

Masterreka, 4 behea

☎ 76 18 93


ARDATZA

Brikolaketa

- Ateak eta zokaloak • Horma armairuak • Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak • Era guztietako moldurak • Apalak • Kajoiak •

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Udaletxearen historiari buruzko erakusketa

"Udaletxea historian zehar" izeneko erakusketa ikusgai izan zen Udaletxeko Pleno Aretoan martxoaren 3tik 31ra bitartean. Maria Garai arte historiagile eibartarrak prestatutako erakusketan, Bergarak historian zehar izan dituen udaletxei eta emandako erabilerei buruzko azalpenak jaso ahal izan ziren. Udaletxea eraikitzen XVII. mendean hasi bazen ere, bere jatorria 1555. urtekoa da. Orduetik izandako hobekuntzak azaldu ziren 3 milioi t'erdiko aurrekontua izan zuen erakusketan.

ESAN ZUTEN...



RICARDO AZKARGORTA

"Entxufismoak asko funtzionatzen du pinturaren munduan"

PINTOREA

EDUARDO MURUA

"Kultura mailan dantzari garrantzi gehiago ez ematea botatzen dut faltan"


DANTZARIA



IÑIGO RAMIREZ


"Baserriak desagertu ahala degradazioa dator, turismo ekologikoa bultzatzen ari garenean gainera"

HISTORIAGILEA



Korrika Bergaran

AEK, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak antolatzen duen Korrika heldu zen, Bergarara martxoaren 23an, arratsaldeko 7.30ak inguruan. Udaletxeko langileek, AEK euskaltegiak, Gestorak, Jardun Elkartek-Xamatx dantzataldeak, Herri Batasuna-Artatse elkarteak eta Aranzadi Ikastolak, herriko ibilbideko 6 kilometroak egin zituzten jendearen txalo artean.



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

M O T Z E A N

MARTXO EURITSUA

Martxoko lehen astean 138 litro metro karratuko jaso ziren Bergaran. Urtarril osoan 159 litro jaso ziren eta otsailean 278.

ESKUTALDEA FRONTOIKO ERRENTARI BERRIA

Martxoaren 4an, Herederos de Gabilondok eta Eskutaldea hitzarmena sinatu zuten Bergarako Udala-ren oneritziarekin, Eskutaldea izan zedin Udal Pilotalekuaren errentari berria.

IAT-ITV BERRIA ZABALIK

Ibilgailuen Azterketa Teknikorako tailerra martxoaren 6an zabaldu zen Santalaitzen.

ZUHAITZ EGUNA

50 bat haurrek hartu zuten parte San Martzial inguruan ospatu zen Zuhaitz Egunean, martxoaren 18an.

"ROSSLI"RI ONGI ETORRIA

Jose Luis Loidi "Rossli"ri ongi etorria egin zitzaion martxoaren 22an Plazan. Lau urte espetxean eman zituen.

ELKARRIZKETAREN ALDE

Elkarri, Gesto Por la Paz, Amnistiaren Aldeko Komitea eta Senideak taldeek aurkeztutako mozioa Udalbatza osatzen duten alderdi guztiek aho batez onartu zuten plenoan. Mozioan, besteak beste, elkarrizketa eta distentsiorako kultura aldarrikatzen zen.



Agur Miserableei

Musika Eskolaren "Miserableak" ikuskizunaren azken emanaldia izan zen martxoaren 17an Arrasateko Amaia antzokian. 1994ko urtarrilean estreinatu zenetik, Musika Eskolakoek 9 emanaldi eskaini zituzten Euskal Herrian zehar eta guztira 10.000 lagunetik gora ikusi zuten musika muntaia. ETBk "Miserableak"-en azken emanaldia grabatu zuen etorkizunean telebistatik eman ahal izateko.

1 9
9 5

Gregoria Aranburuk 100 urte

Gregoria Aranburu Elgetak 100 urte bete zituen martxoaren 12an. Sebastian Azpeitiaren alarguna Eibarren jaio zen, baina 12 urterekin Elgetako San Juan baserrira abiatu zen haurrak zaintzera. Gregoria osasuntsu eta alaitu topatu genuen.



P R O T A G O N I S T A K



CLAUS MOLLER

Txirrindulari danimarkarrak irabazi zuen Gorlako XXI. txirrindulari igoera. Afizionatu mailako proba ospetsua irabazten duen lehen atzerritarra da.


MARTIN ETXANIZ

Orfeoiko presidente berria izendatu zuten zuzendaritza berria aukeratzeko egindako batzarrean. 33 urte ditu eta Orfeoiko kidea da.



VALENTIN KALBOETXEAGA

1971n zabaldu zirenetik Udal Igerilekuetako mantenimendu arduraduna izandakoa jubilatuta egin zen.



abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa

P. Manso Optika

Irizar, 2

Urte berri on!!

☎ 76 27 86

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepassoa



Jende ugari agertu zen Seminariora, Erramu Zapatuko feria ikustera.

Jende ugari kalean Erramu Zapatuko Feria ikusten

Erramu Zapatuko Feria izan zen apirilaren 8an. Besteak beste, 80 bat behi eta txahalburu, 50 bat ardi eta 25 zaldi eta behor izan ziren ikusgai. Horrez gain, baita artisau lanak, ogia, taloa, txorizoa, sagardoa, Errioxako ardoa edota gaztak ere. Jardunek antolatutako txorimalo lehiaketara, bestalde, 22 txorimalo aurkeztu ziren. Bertsolariak ere izan ziren. Udaleko iturrien esanetan, bestetan baino eskakizun gehiago jaso ziren postuak jartzeko.

ESAN ZUTEN...



IÑAKI MOZOS


"Ararteko jarri dute Javier Markiegi. Ez daki euskaraz. Ez omen dute halakoetan perfilik behar"

IRAKASLEA

IDOIA MORENO

"Ez dago adinik aerobika egiteko. Hori bai, erritmoa behar da, musika lasasiak ez du motibatzen"


AEROBIK IRAKASLEA



ELI PAYROS

"Hitzarmenarekin hainbat talde euskara hutsez jardutera pasa dira"

**EUSKARA
HITZARMENAKO
TEKNIKARIA**



Jardunek zuzendaritza berria aukeratu zuen

Jardun, herriko euskara elkarteak, apirilaren 5ean egindako Batzar Orokorrean Zuzendaritza Batzorde berria aukeratu zuen. Jarduneko bazkideek Andoni Etxeberria izendatu zuten Jarduneko Lehendakari, Jose Angel Mikeo ordezkatu. Felipe Iñarra, Arantza-

zu Larrañaga, Alazne Mendizabal, Nora Palmitano, Eider Ugalde eta Eneko Azkarate, berriz, batzordekide izateko aukeratu zituzten.

Batzarra Masterrekako lokalean egin zen. Jardun Elkarteak, 570 bazkide ditu gaur egun.

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

M O T Z E A N

1995erako PRESUPUESTOA

1995erako 2.179 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen Udalbatzak apirilaren 3ko ez-ohizko Plenoan, EAJ eta PSE-EEren aldeko eta HB eta EAren kontrako botuekin.

ASTE ANTIMILITARISTA

Soldadutzaren aurkako eta intsumisioaren aldeko Aste Antimilitarista antolatu zuen BOTAk, Bergarako objektoreak biltzen dituen taldeak, apirilaren lehenengotan.

JABIER RETEGI ETA ENEKO OREGI BERGARAN

Jabier Retegi Industria Sailburua eta Eneko Oregi Hezkuntza Sailburuordea Bergaran izan ziren apirilaren 5ean Miguel Altuna Institutuaren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako hitzaldian parte hartzen.

TXAKUR LEREN LASTERKETA

Estatu osotik etorritako 42 partaide aritu ziren Txakur Leren Lasterketaren bigarren edizioan apirilaren 9an Gorka inguruan. Axen Garitano bergararrak ere hartu zuen parte.

TURISTAK BERGARAN

80 bat turista hurbildu ziren Bergara ikustera Aste Santuan. Uda partean bezala, zabalik izan zen Turismo Bulegoa Aste Santuan.



Euskara Hitzarmena

Herriko 22 talde gehitu ziren duela 3 urte Udalak eta Jardunek bultzatu zuten Euskararen Hitzarmenera. Sinatze ekitaldia apirilaren 8an Udaletxeko Pleno Aretoan egin zen.

1 9
9 5

Txotxongiloak Bergaran

Taun-Taunek antolatutako Txotxongiloen Nazioarteko III. Mostra izan zen Bergaran apirilaren 27tik 30era bitartean. Euskal Herritik eta Andaluzia, Kataluina, Madril, Frantzia, Mexiko edota Italiatik etorritako txotxongiloak ikusi ahal izan genituen Bergarako kale eta antzokietan.



P R O T A G O N I S T A K



MIGEL ALTUNA

Elementalaren bultzatzaileetarikoa izan zena, 78 urte zituela hil egin zen apirilaren 1ean. Apaiz amezketarra oso ezaguna eta maitatua zen herrian.

TXARO ZABALA

Begarako Bildumazaleen Elkarteko presidente izendatua izan zen. Orain dela 25 urte elkartearen sortu zenean ere bera izan zen presidente.



JOSU OREGI

Euskaltzalea. 75 urte zituela hil zen Ostiral Santu egunean. Legebiltzarreko itzultzaile arduraduna izandakoa, EAko partadidea zen.

abenduak 29 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa

EGILUZ lurrindegia

Irizar, 3

Larruazal osasuntsu baten alde

☎ 76 24 82

BERGARAN 1995EAN GEHIEN IKUSI DIREN PELIKULAK

- EL REY LEON. 2.000 ikusle.
- PULP FICTION. 1.500 ikusle.
- LA MASCARA. 1.400 ikusle.
- UN PASEO POR LAS NUBES. 1.350 ikusle.
- EL PRIMER CABALLERO. 1.300 ikusle.
- BREVEHEART. 1.100 ikusle.
- MAITÉ. 1.000 ikusle.
- DOS POLICIAS REBELDES. 950 ikusle.
- ACOSO. 900 ikusle.
- ENTREVISTA CON UN VAMPIRO. 850 ikusle.

Iturria: Novedades aretoa



IRALA BIDEO KLUBEAN GEHIEN ALKILATU DIREN BIDEO ZINTAK

- SPEED.
- CAUSA JUSTA.
- CUANDO UN HOMBRE AMA A UNA MUJER.
- EL ESPECIALISTA.
- LEYENDAS DE PASION.
- RIO SALVAJE.
- CADENA PERPETUA.
- FORREST GUMP.
- EL CALOR DE LA NOCHE.
- EL INFORME PELICANO.

ZAIAZKO BIDEO KLUBEAN GEHIEN ALKILATU DIREN BIDEO ZINTAK

- SISTER ACT.
- JURASIC PARK.
- EL FUGITIVO.
- ALERTA MAXIMA.
- EN EL NOMBRE DEL PADRE.

- FORREST GUMP.
- LA MANO QUE MECE LA CUNA.
- EL INFORME PELICANO.
- SOL NACIENTE.
- SIN PERDON.

LIBURU SALDUENAK BERGARAN

EUSKARAZ

- KUTZIDAZU BIDEA, IXABEL. Josean Sagastizabal.
- EZTIA ETA OZPINA. Patxi Zubizarreta.
- ZERU HORIEK. Bernardo Atxaga.
- HAUTSAREN KRONIKA. Mujika Iraola.
- LEHENAGO ZEN BERANDU. Arantxa Iturbe.
- KUBA TRISTE DAGO. Juan Martin Elexpuru.
- HAMAIKA PAUSO. Ramon Saizarbitoria.
- LANGOSTA BATEN INGURUAN. Telesforo Monzon.
- HNNY ILLA MYHA MAJAH YAKOO. J. Sarrionaindia.
- UKOREKA. Patxi Zabaleta.

GAZTELERAZ

- EL MUNDO DE SOFIA. Jostein Gaarder.
- DONDE EL CORAZON TE LLEVE. Susana Tamaro.
- LA PIEL DEL TAMBOR. Perez Reverte
- EL HOMBRE QUE SUSURRABA AL OIDO... N. Evans.
- MAS ALLA DEL JARDIN. Antonio Gala.
- MALENA ES UN NOMBRE DE TANGO. A. Grandes.
- LA MIRADA DEL OTRO. F. Delgado.
- EL MISTERIO DEL SOLITARIO. Jostein Gaarder.
- EL REGRESO. Rosamunde Lecher.
- LOS PUENTES DE MADISON COUNTRY. R. Waller.
- PAULA. Isabel Allende.

Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba eta Zangitu,



BEGIRALE eta ZUZENDARI TITULUA eskuratzeko ikastaroak

Urtarriletik maiatzera bitartean, astebukaeretan
Prezioa: 25.000 pzta. Izen-ematea: JARDUN Elkartean (☎ 76 08 19)

DISKO SALDUENAK BERGARAN

EUSKAL MUSIKA

- **GOZATEGI.** Gozategi anaiak.
- **GAUA HELDU ORDUKO.** Exkixu.
- **MUNDU HEGIAN.** Sorotan Bele.
- **GAZTEA NAIZ ETA ZER?** Bittor Aiape.
- **LANDALAN.** Oskorri.
- **NOLA ESAN DEK.** Lin Ton Taun.
- **PAILAZOA.** Txirri Mirri eta Txiribiton.



KANPOKO MUSIKA

- **THESE DAYS.** Bon Jovi.
- **THE MEMORY OF THEES.** Enya.
- **ABRIENDO PUERTAS.** Gloria Estefan
- **LA REBELION DE LOS HOMBRES RANA.** El Ultimo.
- **LA FLOR PROMETIDA.** Luz Casal.
- **MAQUINA TOTAL.** Bakailau musika.
- **POWER RANGERS.** Bakailau musika.

Iturria: Etxepare-Bilintx eta Zaiazko.

KOTXE SALDUENAK BERGARAN

- **OPEL ASTRA.** 28 kotxe.
- **FORD MONDEO.** 17.
- **RENAULT CLIO.** 14.
- **FORD ESCORT.** 13.
- **RENAULT LAGUNA.** 12
- **CITROEN XANTIA.** 11.
- **CITROEN ZX.** 10.
- **OPEL CORSA.** 10.
- **FORD FIESTA.** 9.
- **SEAT IBIZA.** 9.
- **OPEL VECTRA.** 9.
- **RENAULT 19.** 8.



Iturria: Udala

ALDIZKARI SALDUENAK BERGARA

- **PRONTO.** 754 ale batzbeste.
- **HOLA.** 648.
- **LECTURAS.** 536.
- **SEMANA.** 502.
- **DIEZ MINUTOS.** 452.
- **SUPER TELE.** 252.
- **MIA.** 199.
- **INTERVIU.** 144.
- **AUTOPISTA.** 102.
- **MICASA.** 75.
- **MOTOCICLISMO.** 64.
- **CLARA.** 45.
- **DUNIA.** 25.
- **MUY.** 22.



Iturria: Herriko kiosko eta liburu dendak.

EGUNKARI SALDUENAK BERGARAN

- **EL DIARIO VASCO.** 1.625 ale batzbeste.
- **EGIN.** 290.
- **MARCA.** 203.
- **EL MUNDO.** 148.
- **DEIA.** 95.
- **EGUNKARIA.** 87.
- **EL CORREO.** 45.
- **EL PAIS.** 33.
- **EXPANSION.** 15.
- **SPORT.** 12.
- **MUNDO DEPORTIVO.** 12.
- **AS.** 9.



Iturria: Herriko kioskoak.
Oharra: Egunkariaren kasuan, erdiak baino gehixeago harpidetzazkoak dira.

BEGIRALE eta ZUZENDARI TITULUA eskuratzeko ikastaroak

Urtarriletik maiatzera bitartean, astebukaeretan
Prezioa: 25.000 pzta. Izen-ematea: JARDUN Elkarte (☎ 76 08 19)



BERGARAKO UDALA

IDAZKARITZA	<i>San Martin Agirre Plaza</i>	77 91 00
ALKATETZA	<i>San Martin Agirre Plaza</i>	77 91 01
KONTUHARTZAILTZA	<i>San Martin Agirre Plaza</i>	77 91 64
BULEGO TEKNIKOA	<i>San Martin Agirre Plaza</i>	77 91 68
EUSKARA ZERBITZUA	<i>San Martin Agirre Plaza</i>	77 91 66

KIROL ZERBITZUA

• BULEGOAK	<i>San Martin Agirre Plaza</i>	77 91 67
• IGERILEKUAK	<i>Boni Laskurain, 21</i>	76 20 51
• KIROLDEGIA		76 56 41

KULTURA ZERBITZUA

• KULTURA ETXEA	<i>Errotalde jauregia</i>	76 44 46 76 07 53
- BULEGOAK		
- LIBURUTEGIA		
- BIDEO GELA		
- ERAKUSKETAK		
- HAUR DINAMIZAZIOA		
- MUSEOA ETA ONDAREA		

• AGIRITEGIA	<i>Errekalde Jauregia</i>	76 28 40
--------------	---------------------------	-----------------

ONGIZATE ZERBITZUA		77 91 65
---------------------------	--	-----------------

ETA OSASUN ZERBITZUA *San Martin Plaza*

- GIZARTE LAGUNTZAILEA
- HEZITZAILE ESPEZIALIZATUA
- ENPLEGU DINAMIZATZAILEA
- DROGOMENPEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA

ZAHARREN EGOITZA	<i>Mizpirualde</i>	76 13 68
-------------------------	--------------------	-----------------

UDAL EUSKALTEGIA	<i>Zabalotegi, 13</i>	76 44 53
-------------------------	-----------------------	-----------------

UDALTZAINGOA	<i>San Martin Agirre Plaza</i>	77 91 06
---------------------	--------------------------------	-----------------

Faxa: 77 91 63

DENBORA LIBRERAKO AUKERAK:

Adin guztietarako kirola


Euskara ikasteko laguntzak

Afizioak lantzeko aukera ugari

Haurrentzako aktibitate propioak

Hezkuntza eskaintza zabala

Herria ezagutzeko ibilaldi gidatuak



77 91 67



77 91 66

76 44 46

Daukaguna zaintzen

ANAJE NARBAIZA



Urte gutxi behar ditu gizakiak inguruan dituen gauzak ahazteko, Bergaran, etxegintzak hartu duen martxa ikusita, inork gutxi gogoratzen du nolakoa zen zehazki duela hamabost urte. Udaletxe ondoko etxeetan zegoen miradorea, Lasagabaster enpresako pabiloiak, Burdiñateko atzeko horma, Espoiloiko palaziotxua eta zenbat holako bota edota aldatu izan diren azken urte haueetan, ezta?

Kapirixo sortu zenean, elkartearen asmoa, gizarteari inguruan duen ondarearen balioa ezagutaraztea zen, pausoz pauso konzientzia maila areagotzeko. Helburu horrekin, Malzaga-Urbina proiektuko IGP prozesuak martxan jarri zirela eta, herria aztertzeari ekin zioten hamarren bat lagunek, orduan azaldu ziren herriari buruzko zenbait ezjakintasun. Non dago San Esteban? Plazentziara oinez joateko Goimenditik dago bidea? Zeintzuk dira Goimendi osatzen duten baserriak? Irurixoko lezea San Martzialeraino iristen da? Eta horrelako mila galdera, bestetik azterketa berean Bergarako Arau Subsidiarioen proposamenean, Beheko Tren Geltokiko eraikuntza, ordenazioz kanpo geratzen zela ikusi-

"Domeka goizean ohean geratu beharrean, auzolanera etorri zintezkete"

ta, Bergarako Udaletxean sujerentzia bat sartu zen, proposamen hori aldatu zedin. Kasu honetan erantzuna ezezkoa izan zen baina horrek bulztatu gintuen Arauetan ezartzen ziren aldaketak nola afektatzen zioten ondareari aztertzeraz.

Egindako azterketak, agerian uzten zuen Elosutik eta Antzuolaraino doan eremu megalitiarra garbitu eta konpondu beharrean zegoela, beraz,

1995erako egitasmoa lan hori buruztean finkatu zen. Denok ibiliko zintzen Urola eta Deba arroek sortzen duten mendikate horretan, baina beharbada batek baino gehiagok ez daki, Kristo aurretiko 2500etik 1500era bitartean egindako tumulo eta trikuharrak (enterramendu kolektiboak) bertan aurkitzen direla. Guztira hamazazpi dira, 1920an J.M. Barandiaranek aurkitutakoak, eta Osintxuko lagunei esker beste bat egon daiteke.

Igande goizetan goizeko 8.30etan Beheko Tren Geltoki zaharrean bildu eta Land-Roverrez, garbitu behar den tumuloraino abentatzen dira bildutakoak, kasu askotan Bergarako paraje ezezagunak zeharkatuz, bertara iritsi orduko 9.45 izaten dira. Bakoitzak nahien duen erreminta hartu eta lanari ekiten dio, eguerdiko 14.00ak arte. Hamaikak aldean hamarretakoa egiten da eta atsedena hiru aprobetxatzen da, enterramendu hauei buruzko azalpena egiteko eta beste garai batzuetan bertatik zehar ibilitako lapurren kontuak edota frantsesen ixtorioak azaltzeko. Horrela lortzen da, joaten direnen eremuari buruzko ezagupidea zabaltzea.

Herriko jendearen laguntza ondo eskertuko genuke, izan ere, garbiketa lana asko luzatzen ari da eta jende gehiago baletor lehenago amaituko litzateke. Amaitzen denean tumulo bakoitzari bere panela ipintzeaz gain, zirkuitoa egiteko sarreretan hiru panel didaktiko handi jarriko dira.

Badakizue, domeka goizean ohean geratu beharrean, auzolanera etorri zintezkete, elkarrekin barre batzuk egin, haize freskua hartu eta beranduen, hiruretarako etxean. Edozeinek egin dezakeen lana da, eta trankil egon ez duzue agujetarik izango hurrengo egunean.



Gaskide, S.L.

ITURGINTZA • BEROGINTZA • GASA

**Jon XXIII
plaza z/g
☎ 76 49 00**

1 9

9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa


ESAN ZUTEN...

**MIREIA GABILONDO**

"Zaila izaten da jendea teatora eramatea, askotan jendeak ez duelako ezagutu ere egiten"

AKTORESA**PABLO IRIZAR**

"Hemengo piloatoak elkartu eta taldearen irudi on bat emateko bildu gara Euskadi Racing taldean"

KOTXE PILOTOA**XABIER LABAIEN**

"Egan taldea banandu zenetik konpetentzia areagotu egin da baina lana ez zaigu falta"

LISKER TALDEKOA**KOLDO LASA**

"Politikoei alderdiarengatik gutxiago arduratzea eskatuko nieke"

SUKALDARIA**PELLO ALBERDI**

"Etiketak merkatuan saltzeko beharrezkoak dira pintura eta artea merkatua baitira"

PINTOREA

Parte hartze handia izan zen normaltasun osoz burutu ziren bozketetan eta Victoriano Gallastegi alkatea izan zen botorik gehien jaso zituen hautagaia.


EAJk lortu zituen botorik gehien maiatzaren 28an egin ziren Udal Hauteskundeetan

EAJk irabazi zituen maiatzaren 28an izandako Udal Hauteskundeak Bergaran. EAJk 3.163 boto jaso zituen; HBk, berriz, 2.861 boto; EA izan zen hirugarren indarra 1.028 botorekin; PSE-EEK, 634 boto lortu zituen, IUk, 399 boto eta PPK, azkenik, 361 boto.

IUK eta PPK lehen aldiz aurkeztu zituzten hautagaien zerrendak Bergaran udal hauteskundeetan, azkenean zinegotzirik lortu ez zuten arren. Andrés Díez (IU) eta Fernando Vergarajauregui (PP) izan ziren alkatetzarako aurkeztu zituzten hautagaiak.

Zinegotzietan dagokienez, EAJk zazpi lortu zituen: Victoriano Gallastegi, Jabier Gabilondo, Luis Abajo, Koldo Pereira, Feli-

pe Altuna, Xabier Zabaleta eta Nere Amaia Zabala. HBk beste zazpi: Maite Aristegi, Jesus Mari Garitano, Aitor Aranzabal, Mikel Eguren, Ane Miren Olabarría, Jose Ramon Etxeberria eta Agurne Barruso. EAK, bi lortu zituen: Juan Mari Garitano eta Jose Antonio Etxeberria. PSE-EEK, azkenik, zinegotzi bakarra lortu zuen: Alvaro Esparza.

*Urte berri on!!***Central Hispano**

Telefonoak: 76 16 44 • 76 19 47 • 76 18 48 • Faxe: 76 19 49

M O T Z E A N

KIROLARI BURUZKO BI LIBURU AURKEZTU ZIREN

Deba Bailarako euskara eta kirol zerbitzuek bultzatuta "Futbol entrenatzailea" eta "Kirol entrenamenduaren oinarriak" euskarazko kirol liburuen edizioa aurkeztu zen maiatzaren 4an Donostian.

LEGEALDIAREN BALORAZIOA

HBk amaitzear zegoen legealdiaren balorazioa egin zuen maiatzaren 8an. Udal gobernuak herriko biztanlego erdiaren ordezkartza baztertu zuela salatu zuten HBko zinegotziek.

ARITZ IRAZABALBEITIA

16 urteko bergararra aske utzi zuen Ertzaintzak maiatzaren 9an. Aritz atxilotua izan zen maiatzaren 7an Soraluzeko bi lagunekin batera, Soraluzeko Iturbe Zaharra baserrian zerabilkiten gasolina eta polborak eztanda egin ostean. Ertzaintzak telefono kabina batean jartzeko lehergailu bat prestatzen ari zirela esan zuen. Aritzek ezeztatu egin zuen bertsio hori.

ANTZUOLAKO ALKATEA INTSUMISIOAREN ALDE

Roke Iñarra Antzuolako alkate ohiak Bergarako epaitegian deklaratu zuen maiatzaren 18an. Antzuolako Udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzeko hartutako erabakiarengatik.



Victoriano Gallastegi, Eli Galdos eta Antton Arbulu, Udaletxe berriztuaren inaugurazio ekitaldian.

Udaletxe berriztua inauguratu zen maiatzean

Eli Galdos Gipuzkoako Diputatu nagusi ohiak inauguratu zuen maiatzaren 6an Udaletxe berriztua. Pleno Aretoa jendez bete zen inaugurazio ekitaldirako. Victoriano Gallastegi alkatea eta Antton Arbulu Hirigintza Diputatu ohiak ere izan ziren. Goizean, alkatearen kontrako eta anarkia eta okupazioaren aldeko pintadak agertu ziren Udaletxeko arkupetan. Obrek 800 milioi ppta.ko aurrekontua izan zuten.



Kristina Gallastegi, Yolanda Cebrián eta Iñigo Alberdik eman zituzten abesbatza osatzeko lehen urratsak eta 35 ahotseko korua osatu zuten.

Txilintxa abesbatza

Txilintxa abesbatzak bere lehen-dabiziko emanaldia eskaini zuen maiatzaren 20an Mariaren Lagun-

diko elizan. 11-14 urte bitarteko 35 neskatila ari dira abesbatzan. Elizalde, Usandizaga edota Eustaquio Azkarate-Askasuaren piezak eskaini zituzten.

**ERAIKUNTZA ETA
TEILATUEN
BIRGAITZE ETA
KONPONKETA**

TXEBAZ S.M
Tfnoa: 76 54 14
Faxa: 76 57 36
Artekale, 25 behea

**IGELTSERITZA
ITURKINTZA
GASA
KALEFAKZIOA**

1 9
9 5

abenduak 29 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Jende piloa Pazkuetan

Jende piloa ibili zen aurtengo jaietan Bergaran, batez ere zapatu gauean, urtero gertatzen den bezala. Jai-giroa nagusi izan zen ekainaren 2tik 5era bitartean eta ez zen aparteko istilurik gertatu. Hala ere, gertaera ezohizkorik izan zen: Eusko Alkartasunaren egoitzako balkoitik zintzilik zegoen ikurriña ostu egin zuten ezezagun batzuk astelehen goizaldean. Igandeko txekorketa, astearteko herri bazkaria eta musika emanaldiak izan ziren ekitaldirik azpimarragarrienak.

ESAN ZUTEN...




FRANCISCO M. OYARZABAL

"Nire apoderatuak Bergaran toreatuko nuela esan zidanean oso pozik jarri nintzen"
TOREATZAILEA

IÑIGO GARITANO

"Udalak zezenketak bultzatzea ez da bidezkoa"

**ZEZENENGANAKO
ERRESPECTURAKO
TALDEKOA**



AITOR ARANBURU

"Akademietan musika modernoa erakutsi beharko litzateke"

MUSIKARIA



Txikizioak San Martzialeko zelaietan

San Martzialeko erromeriarako koadrilek prestatuta zituzten mahaietako batzuk txikituta agertu ziren ekainaren 28an goizean. Ezezagun batzuk 26 mahai apurtu zituzten, horietako batzuk guztiz txikituta eta beste batzuk lurretik atera eta hankaz gora laga zituztelarik. Ekintza ez zuen inork erreibindikatu eta Udalak salatu egin zuen "ganberrada" hori. Kontuak-kontu normaltasun osoz igaro genuen bergararrok San Martzial eguna.

T. Blanco
BLANCO Tailerrak

NISSAN

ZERBITZU OFIZIALA

Ibilgailu arin eta
astunen konponketa

ERAKUSKETA ETA
SALMENTA

Amillaga, 22

Telefona eta faxa:

76 17 35

Erakusketakoa: 76 51 35

20.570 BERGARA

M O T Z E A N

MARIA EUGENIA GRACIA EGOERA LATZEAN

Marai Eugenia Gracia preso bergararra Carabancheleko espetxean bizi zuten egoera latza salatu zuten ekain hasieran Senideak taldeak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak prentsaurrean.

ARTEA ESKAPARATEETAN

Bedelkar-eko 113 dendetako eskaparateak herriko 30 artisten lanez apainduta ikusi ahal izan genituen maiatz eta ekainean.

BERGARAKO ERESERKIA

Bergarako himnoa aurkeztu zen ekainaren 2an Udal Pilotalekuan. Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean Udal Musika Bandak eta 350 herritar inguruk aurkezpen ofiziala egin zuten.

FRONTOIKO OBRAK

Udal Pilotalekuko obrak hasi ziren ekainaren erdialdean.

UDALBATZA BERRIA

Udalbatza berria osatu zen ekainaren 17an. EAJ, EA eta PSE-EEko botuek Victoriano Gallastegi alkate aukeratu zuten. HBko zinegotziek "legeak behartuta" formula erabiliz zin egin zieten beren karguei.

IGERILEKUAK ZABALIK

Kanpoko igerilekuak zabaldu ziren ekainaren 20an.



Euskadiko txapelkunak

Eduardo Muruamendiaraz eta Amaia Agirrek Dantza Sueltokeko Euskadiko txapelketa lortu zuten hirugarren aldiz jarraian ekainaren 18an Seguran, Nestor Basterretxearen eskultura Bergarara betirako ekartzea lortuz. Eduardok, bestaldé, Euskadiko aurreko txapelketa ere lortu zuen bigarren urte jarraian bi aste lehenago.


1 9
9 5

Ekologiari eraso

130 amorrain (alebinak gehienak) akabatuta agertu ziren ekainaren 22an, San Juan errekan galeper haztegiaren eta Ubera artean. Produktu kutsakor batek eraginda akabatu ziren.



P R O T A G O N I S T A K



AGUSTIN ARANZABAL

Realeko jokalaria Espainiako selekzioarekin debuta egin zuen ekainaren 8an Benito Villamarinen Armeniaren kontra.

REGINO VALLE

Urtetan Promoción Culturalen ibilia eta Musika Eskolaren sortzaileetarikoa bat izan zena omendu zuten Musika Eskolak Udaberriko kontzertuan ekainaren 11n.



AINHOA AGIRREAZALDEGI

Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketa irabazi zuen ekainaren 10ean Armentian. Ainhoak Lizardi saria ere irabazi zuen irailean.

abenduak 29 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa

- Proiektuak
- Dekorazioa

Rincones


dekorazioa

Irala z/g. Telefonoa eta Faxe: (943) 76 52 98

**26 urte ditu.
Jarrai eta HBko
kidea eta
legebiltzarkiderik
gazteena da.**

Legebiltzarrera joan zarenean ekintza sonatuak egitera joan zara. Nolabait esateko "follonero" irudia eman duzu. Esan daiteke gaiztoaren papera egitea tokatu zaizula?

- Komunikabideak sortutako estereotipoak dira. Ekintzak talde parlamentario oso bezala egin ditugu. Interbentzio oso puntualak egiten ditugu, bertan ez sustraitzen saiatzen gara, gure herriarentzat nahi du-



MIKEL ZUBIMENDI, HBko legebiltzarkidea

**"Nahiko kritikoa naiz
Elkarriren ikuspuntuarekin"**

gun parlamentu izaera hori ez duelako. Bestalde, oso erraza da handik politika egitea, dena daukazu zure esku, baina artifiziale den molde batetik egiten da eta nik nahiago dut hortik aldentzea.

- Baina ekintza horiek Parlamentuarekiko errespetu falta erakusten dute.

- Bai, baina nik Legebiltzarra barrutik ezagutzeko aukera izan dut eta izugarritzko iruzurra iruditu zait.

Suposatzen da legearen gordeleku dela eta gauza txikitzen ikusten da nolako den. Esate baterako, parlamentari guztiek kontrabandoko tabakoa erretzen dute, bertako kafetegian saltzen dutena.

- Zer iritzi duzu Elkarriri buruz?

- Nahiko kritikoa naiz Elkarriren ikuspuntuarekin. Askotan iruditzen zait presio mediatikoaren arabera faktore politiko bat dela, giza mugimendu sendo bat

baino. HBko "bigunak" edo ardi onak balira bezala aurkeztu izan dituzte komunikabideetan. Bestalde, Elkarriren teoriaren arabera, Euskal Herrian bizi den egoera berdinketa infinitoen teoria da. Bi bando daude, batak ezin du bestearekin eta beraz, erdibideko bat aurkitu behar da eta horren liderazgo soziala Elkarriri izan behar du. Nire ustez, pakea lortzeko dagoen lehentasunetako bat da Estatuak sentitu egin behar

"Hauteskundeetara HB bezala aurkeztu behar gara, proiektu independentista batekin"

duela presio politikoa, benetan aitortu ditzan gure ustez ezinbestekoak diren eskubideak. Alde batetik Euskal Herriari hitza eman behar dio, autodeterminazioa eta lurraldetasuna aitortuz eta bigarrenik, aurreiritzirik gabeko prozesu demokratiko bat ireki behar ko litzateke euskaldun guztion artean eta horixe da, hain zuzen ere, ETak apirilean proposatutako agiri famatua. Niretzat hori da pakerako bidea. Elkarrik, ordea, gatazkaren desaktibazioan sinisten du.

- **ETAren azken atentatuen ostean, Arzalluzek esan du aldi baterako zapuztu direla elkarrizketarako bideak...**

- Ez dut uste elkarrizketarako aukerak atzeratu egin direnik. PNV eta Arzalluz kontraesanetan itotzen ari dira. Alde batetik, dialogoaren estetika bat zuritu dute, hor daude Egibar edota Olloraren iritziak. Baina guri interesatzen

zaizkigunak ekintzak dira eta ekintzetan PNV lotuta aurkitzen da estatuaren estrategiarekiko eta bere klientela politikorekiko, hau da, EITB, Ertzaintza edota administrazioaren inguruan sortutako klientela politikorekiko.

- **Kalean talde pakezaileen eta ezker abertzalearen arteko istiluak areagotu egin dira. Zergatik hartu du bide hori ezker abertzaleak?**

- Ezin dena da lazo urdinak bide eta komunikazio guztiak irekita izan eta ezker abertzalea marginazio mingarri eta antidemokrati-koenean egon. Bada garaia bi errealitateak aurrez-aurre jartzeko. Aldaia arreatuta dago, baina beste errealitate bat ere badago.

- **Ez duzu uste kalean gertatzen ari diren istiluekin ados ez dagoen gero eta ezker abertzaleko jende gehiago dagoela?**

- Guretzat kuestioa ez da HBko gehiago izatea,

baizik eta Euskal Herriaren independentziaren alde gero eta jende koherente gehiago izatea. Uste dut beste ziklo politiko luze bat ziurtatzen duen belaunaldi bat etorri dela borrokaren eskenatokira.

- **Komunikabideetan zabaldu da hurrengo hauteskundeetara aurkeztu ala ez eztabaidatzen ari dela HB.**

- HB beste alderdi politiko batzuen jokabideetatik aldendu behar da. Zentzu horretan hauteskundeak datozen bakoitzean ezin gaitzke erreflexiorik egin gabe, beharrak aztertu gabe, hauteskundeen inertzian sartu. Martxoko hauteskundeetara aurkeztzen bagara, nik uste dut kanpaina ezin daitekeela izan borrokaren arteko parentesi bat, sekuentzia aislatu bat. Hor aukera ezberdinak planteatu dira: batetik, HB bezala aurkeztu; bestetik, abstentzio aktibo bat eskatu eta azkenik, politika konbentzionala utzi eta zerrenda ireki bat aurkeztu, autodeterminazioa eta lurraldetasuna eskatuz. Nire ustez HB bezala aurkeztu behar genuke, proiektu independentista batekin.

Biltoki

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51



Xey

SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00



PHILIPS

TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepassoa



Haur ugari udalekuetan

Herriko 306 gaztetxok hartu zuten parte Kikaundi ludotekak uztailaren 3tik 21era bitartean antolatutako udalekuetan. Jolasak, eskulanak, irteerak eta beste hainbat iharduera egin ahal izan zituzten 3 urtetik 14 urtera bitarteko neska-mutikoei udalekuetan. Herriko 29 begirale eta 3 koordinatzaile aritu ziren gaztetxoekin. Esan dezagun, bestalde, Ainhoa Arbelaitz eta Ane Laskurain direla irailetik aurrera ludotekako arduradunak. Lehen, Kikaundi izena zuten eta orain Xipizaro deitzen da.

ESAN ZUTEN...



PATXI AZKARGORTA

"Martuteneko gartzela bost bergararrek inauguratu genuen"

AZPETIKO BERGARARRA

ASIER LAZKANO

"Dultzainarako piezez gain, sanbak edo mexikarrak ere lantzen ditugu"


KOBOK TALDEKO PARTAIDEA



MIKEL UGARTE

"Orain dela 40 urte Brasilerara joan ginenean, Bergaran lauzpabost kotxe besterik ez zeuden"

BRASILEKO BERGARARRA




Bergarako postalak

Herrikan kanpo Bergara ezagutzera emateko postalak kaleratu zituen Bergarako Udalak. Uda partean Turismo Bulegoa zabalik izan behar zela eta, 15.000 postal inguru banatu ziren Logroño, Haro, Gasteiz edota Donostiako hotel, jatetxe eta dendetan. Postaletan herriko toki edo eraikuntza ezagunak agertzen dira.

Jaiak han eta hemen

San Pedro eta San Martzialekin hasi eta San Kristobal, Santa Marina, Antzuola edota Basalgoko jaiak izan ziren uztailean zehar. Uda partean jai-giroa nagusi izaten da bazter guztietan.



ERLOJUDENDA

Urte berri on!!

AINH A

BITXITEGIA

Boni Laskurain ☎ 76 47 40

M O T Z E A R N

KIROL ARGAZKIAK

Agustin Gurrutxaga bergararrak koloretan eta Javier Pedro Fernándezek zuribeltzean irabazi zuten Kirol Argazkien V. Lehiaketa. Guztira 98 argazki jaso ziren.

BERRIGARAREN 200. ALEA

Berrigararen 200. alea kaleratu zuen uztailaren 14an.

BIZIKLETA MARTXA


"Deba, maite dugun ibai" lemapean, Deba ibaiaren aldeko XVI. bizikleta martxa antolatu zuten talde ekologistek uztailaren 16an. Bestalde Eguzkik antolatutako Txirrinka bizikleta martxa Bergararra heldu zen uztailaren 29an.

BATZORDE INFORMATZAILEAK

Udaleko Batzorde Informatzaileetako presidentek aukeratu ziren uztailaren 17ko Plenoan: Victoriano Gallasategi (Hazienda), Javier Gabilondo (Gobernazioa), Felipe Altuna (Auzoak), Kulturan, Luis Abajo (Jaiak), Xabier Zabaleta (Kirolak) eta Koldo Pereira (Hezkuntza eta Euskara), Jose Antonio Etxeberria (Hirigintza) eta Alvaro Esparza (Gizarte ongizatea).

ARANTZAZURA ERROMESALDIA

Arantzazuko santutegira erromesaldia egin zen uztailaren 25ean. Loiolako basilika ere bisitatu zen.

**Aitor Zabaletak Espainiako Txapelketa lortu zuen**

Aitor Zabaleta kotxe piloto bergararrak Espainiako mendi igoeretako txapelketa lortu zuen uztailaren Chantadako (Galizia) igoera irabazi ondoren. Garaipen horrekin San Juango gidariak azken urteetan horrenbeste kostatu izan zaion Espainiako txapelketa eskuratzea lortu zuen. Aitor Zabaletak, aurten korritu dituen froga guztiak irabazi ditu, Jaizkibeleko igoera esate baterako, eta Espainiako txapelketaz gain Euskadikoa ere eskuetan du.

P R O T A G O N I S T A K

**GORKA ELORTZA**

Berrigarako zuzendari izandakoa Angiozarko auzo alkate izendatu zuten auzokideek, Jose Angel Mikeo ordezkatzuz. 31 urte ditu.

ENERITZ MUGURUZA

12 urteko igerilari bergararrak Tolosan jokaturako Euskadiko Txapelketan bi urrezko domina lortu zituen.

**ENRIQUE NIETO**

30 urte. Maila nazionaleko futbol entrenatzaile karneta lortzen duen lehen bergararra. Zamora Realeko jokalaria ohiarekin batera lortu zuen karneta.

IGANDETAN**ZABALIK!!**

umelaga
JATETXEA


San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

URTE**BERRI****ON!!**1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepaso

Euskal jakiek badute tokirik jai hauetan

GERMAN MURUAMENDIARAZ



"Kalitatezko euskal produktuak erosi eta kontsumitzen baditugu baserritarrari merkatu berri baten ateak zabaltzen dizkiogu"

Ondorengo lerroetan, sasoi honetako jan-eskaintza zabalaren barruan, kalitatezko euskal jakiek zer posibilitate duten aztertu nahi nuke.

"Labela", "Jatorrizko izendapena", "janari ekologikoak" hitzak geure produktu batzuen, hau da, Euskadin bertan sortu eta elaboratutako produktu batzuen, kalitate ezaugarriak dira. Eta, pozez esan genezake, izendapen horiek gero eta ezagunagoak direla gure gizartean, azken batean ziurtatzen duten kalitate-maila eman egiten dutelako.

Ez dago esan beharrik, gure kultura gastronomikoa bertako produktuei lotua izan dela beti. Baina, uka ezinekoa da, lehen askotan kontsumitzaileak ez zuela jakiten eta orain, Administrazioak kalitatea bultzatzeko estrategiari heldu eta izendapen horiek bultzatu dituenean, ziurtasun osoz dakie-la produktu bat nongoa den eta egoki elaboratu eta komertzializatu dela.

Gainera, kalitatezko euskal produktuak kontsumitzen dituenak jakin behar du produktu horiek erosita baserritarrari etorkizunerako merkatu berri baten ateak zabaltzen dizkiola, eta bere bultzada horri esker epe ertainera hemengo baserritarrek Euro-

par Batasuneko merkatu guztiz zail horretan konpetitu ahal izango dutela.

Politika honen eman ditu dagoeneko lehenengo emaitzak. Getariako txakolina, adibidez,

ardo "exkax" eta baztertu bat izatetik Estatuko ardo zuri nagusien artean sartzera igaro da 10 urtetan. Arabar

Errioxako ardoak hasi dira jabetxe haundietako kartetan nortasun propioz, Errioxako beste ardoetatik aparte agertzen, eta produkzioaren %30 esportatzera iritsi dira. Idiazabal gaztak 1988an jatorrizko izendapena martxan jarri zenean 100 tonelada saldu zituen; azken kanpainen, berriz, ia milara iritsi da. Ganadu-okelari dagokionez, labela martxan jarri eta urtebete eskasean, milioi bat kilo saldu dira baimendutako harategietan. Era berean oso emaitza onak izan dituzte "Gernikako piperrak", "Eztia" eta "Eusko oiloa" labelak eta baita "Euskal baserri" ortuarien marka generikoak ere.

Azken batean, bidean abiatu baino ez gara egin, eta oraindik ibilaldi luze eta neketsua izango den arren, martxa onean doaz bai baserritarra eta bai euskal kontsumitzailea.


Horregatik guztiagatik, gogoratu nahi nizueke, oraindik Gabon Zahar eta Urteberri eguneko menuak osatu gabe badituzue, kalitatezko euskal produktuek horretarako aukera paregabea eskaintzen dutela.

Hona aukera: "Euskal baserri" barazki bikainak; Hondarribiko legatza; baserriko oilaskoa (kapoien inbidiarik gabea), gaztaina purearekin; Labeldun bildotsa edo "Euskal okela"ko zaharren txuleta eder bat; Idiazabal gazta eta errege-sagarrez egindako konpota. Hori guztia bustitzeko, sargardoa, Getariako txakolina, Arabar Errioxako ardo ederra, txanpain kopatxo bat (Arabar Errioxan ere badugu txanpaina) eta digestioa ondo egiteko Amurrioko patxarana. Ez didazue ukatuko menu ederra prestatu dizuedala.

Ah, eta hori bai... postretarako, Bergarako errelleno eta tostoia.

On egin eta zorionak denoi.

Artekale, 27
☎ 76 50 80
(Gauko 9etatik aurrera)



ATABAKA
Bittoriano Larrañaga
SALEPOSKETAK

ANTZINAKO GAUZAK
BERRIZTAPEN LANAK

TELAETXE S.A.

SAIL BERRIA: TAPIZEN ERAKUSKETA

OIHAL eta OIHAL PUSKAK

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal" en ondoan)
Telefonoak: (943) 76 39 40 - 76 39 41 • Faxe: 76 56 38 • 20570 BERGARA



**AUKERA HANDIA OIHAL ETA
PUSKETAN, METROKA ZEIN PISURA**

EDREDOI NORDIKOAK

TAPIZEN ERAKUSKETA

**ZETAK, KORTINAK, TOAILAK,
YAKAREAK, IZARAK, TAPIZAK, e.a...**

FABRIKA PREZIOAN!!

**ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK ZAPATURA
9.00-12.00 eta 15.00-19.30**

**KONFEKZIO SAIL BERRIA BISITA
EZAZU: GALTZAK, PARKAK,
ALKONDARAK, TXANDALAK,
SUDADERAK, JERTSEAK,
HAURRENTZAKO ERROPAK...**

Urte berri on!!

BEDELKAREko
harategiek



Urte berri on
opa dizuete

iGARZA

Irizar, 3 ☎ 76 14 12

Jon Mirena
Leturia

San Pedro, 24 ☎ 76 12 23

Sebastian Imaz

Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67

Luis Mari Rezola

Matxiategi, 7 ☎ 76 17 63

Javier Lazpiur

Komenio, 2 ☎ 76 10 72

Pello Urcelay

Ibargarai, 7 ☎ 76 00 45

LUIS LETURIA

Artekale, 5 ☎ 76 11 30

Jose Manuel
Zurutuza

Urteaga, 9 ☎ 76 08 68

Danetik eta onetik BEDELKAREko harategietan
500.000 pzta. irabaz ditzakezu!!



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGARA

San Juan Erreka. Elgetara bidea.

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25

Arozlan mekanikoa

**Sukaldeko
armairuak**

Horma armairuak

Ateak

Tarimak-parketak

**Neoprenozko
juntadun**

egurrezko leihoak

**KAPRESA PVCzko
leihoak**



ARREGI, S.M



ARROZTEGIA

TAILERRA:
Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
ERAKUSKETA:
Bidekurutzeta, 38



Pintura materiala

Eskulanak

Marko jartzeak:

- Ispiluak
- Laminak
- Koadroak
- Oleoak
- Tituluak

Bidekurutzeta, 38
☎ 76 31 03

EDERGAI

Berriztu egin dugu denda, zatoz ikustera!!

Zer da kultura?

ITXASO AZKARATE



"Ezin dugu lasai eta pozik geratu gauzak antolatu hutsarekin, baldin eta publikoarengana esfortzu hori iristen ez bada"

ultura? Zer da kultura? Definizio baten bila jardun dut idatzi labur honi konbentzitzeko moduko hasiera bat eman nahian eta 1871ko hauxe aukeratu dut:

"Kultura pentsatzeko, sentitzeko eta iharduteko modu formalizatuen sare bat da zeinak, jende-multzo plural batek ikasi eta konpartituta, objektiboki eta sinbolikoki jende multzo hori kolektibitate bereizi eta aparteko bihurtzen duen".

Paperetik kopiatu baino ez dut egin eta zuzena dela iruditzen zait baina zail samarra jende guztiak, hau irakur dezakeen "publikoak", ulertu halizateko.

Eta, gauzari buelta batzuk emanda, letra haundiz idazten den kultura, askotan itxurakeria hutsez egiten dena, etorri zait burura; eta, haren parean, oinezkoen kultura herriaren talde txiki eta ez hain txikietan sortzen dena: musika-talde txikiena, herri mailako antzerki taldeena, pintoreena, zeramistena, irratia egiten dutenena,

komikilariena, zinea bultzatzen dihardutenena, etab.ena. Azken batean denok ulertzen dugun kultura, denok gaudelako horretan sartuta.

Kolektibo baten izenean hitzegiten dut, bere lana herritarrengana, "publikoarengana", iritsi dadin hamaika ilusio, esfortzu eta lan jartzen duen ko-

lektibo baten izenean; eta hitzegiten dut kezka batekin, izan ere gure lanak ez baitu ezertarako balio aipatutako "publiko" horrengana iristen ez bada.

Eta kezkaz galdetzen diot erakusketetara joaten ez den "publiko" horri eta zergatik den hala: informazio faltagatik den; ala lokal egokirik ez dagoelako; ala, garestia delako; ala, interesatzen ez zaielako...

Ezin dugu lasai eta pozik geratu gauzak antolatu hutsarekin, baldin eta hartzaile izan behar dutenengana, "publikoarengana", esfortzu guzti hori iristen ez bada.

Azterketa sakon bat egin beharra dugu, eta, beharbada, kultura sortzeaz gain, kultura hori jasoko duen publikoa ere sortu beharra dugu. Horra hor erronka.



Lurrindegia
Edertze aretoa

alga

Ibargarai, 10
☎ 76 00 85

- Aurpegiko azalaren garbiketa
- Gorputz igurztiak
- Zera bidezko depilazio hotz eta beroa
- Depilazio elektrikoa
- Makilaia
- Solariuma

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Eulien arazoari irtenbide bila

Uda partean normala dena baino euli gehiago ibili zen herrian eta oso molestagarriak izan ziren, batez ere Matxiategi inguruan. "Perdices Altube" eta "Criadero Vascongado de Codornices" enpresek dituzten haztegiei bota zitzaien eulien ugaltzearen errua. Arazoari irtenbideak aurkitu nahian Jaurlaritzako Osasun sailekoak Bergaran izan ziren abuztuan kontua aztertzen. Ikusketa egin zutenean ez zuten eulien gehiegizko presentziarik somatu haztegietan. Hala ere, ikerketen arabera argi geratu zen bi haztegi enpresek ez zituztela beharrezko neurriak betetzen eta haztegietakoa hondakindegia behar bezala mantentzeko neurriak hartzea behartu zituzten.

ESAN ZUTEN...



JOSE MARI ZEZEAGA

"Minduta nago. Unanuek bere hitza bete izan balu, Lasshoa enpresak aurrera irtengo luke"

PELOTARIA

MARTIN GARITANO

"Nazional-katoliko espainiarrek Euskal eleiza zapuzteko duten interesa agerian geratu da"

KAZETARIA



MARTIN ALUSTIZA

"Leitzako frontoian Unanue eta Zezeagarekin kointziditu nuen ez zioten elkarri begiratu ere egin"

PELOTARIA




Gorlako kantina berriaren obrak amaitu ziren

Gorlako kantina berriaren lanak abuztuan amaitu ziren. Kantina berriak 15 milioi pezeta inguruko kostua izan zuen eta Diputazioa (13 milioi) eta Udalaren artean ordaindu zen. Udalak kantina adjudikatzekoi baldintza pleguak kaleratu zituen irailean eta urte ho-

nen amaieran adjudikazioa egiteko asmoa zuen.

Kantina berria udaberri partean zabalduko eta zaharra bota egingo da. 70 metro karratuko zurezko borda antzeko eraikuntza bat da. Sukaldea, taberna, jantokia, komunak eta despentsa ditu barrualdean.



Barrenkale, 35

Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

☎ 76 24 89

Urte berri on!!

M O T Z E A N

ZEZEAGA ETA ETXANIZEK ALTIREKIN FITXATU ZUTEN

Jose Mari Zezeaga, Jokin Etxaniz eta Enpresas Unidaseko koadroko beste bost pilotarik Altirekin fitxatu zuten abuztu hasieran, Unanuek Altirekin joatea erabaki eta gero.

TURISTAK BERGARAN

Bestetan baino jende gehiago ibili zen herrian abuztuaren. Kanpotik ere turista ugari etorri zen herria bisitatzera. Turismo Bulegoan 1.300 kontsulta egin ziren. Katalanak, madrildarrak, Euskal Herriatik bertatik etorritakoak eta baita atzerritarrak ere.

IÑIGO ELKORO ATXILOTU

Iñigo Elkoro intsumiso bergarra Hernanin atxilotu zuen Ertzaintzak abuztuaren 7an, soldadutzari uko egiteagatik eta egin behar zioten epaiketara ez agertzeagatik. Martutenera eraman zuten eta bertan gaua egin ondoren epaileraen aurrera eraman zuten. Deklaratu eta gero, libre utzi zuten.

LAZO URDINA

Abuztu hasieran lazo urdin haundi bat jarri zen bariantean, Lasagabaster parean, Aldaiaren askatasuna aldarrikatzeko. Abuztu amaieran, ostera ezezagun batzuk su eman zioten eta Udaltxeko balkoian zegoen lazo urdinari ere pintura poteak jaurti zizkioten.



Bergarako Udalaren diru laguntzarekin eraikitako etxe komunitario bat inauguratu zen Nikaraguan

Abuztuaren 13an inauguratu zen Nikaraguako Granada hiriburuan Bergarako Udala, Donostiakoa eta Astigarrakoaren artean finantzatutako Guapinoleko Etxe Komunitarioa. 6 milioi pezetako aurrekontua izan zuen proiektuak eta Bergarako Udalak 2.400.000 pzt. eman zituen. Jose Angel Mikeo Mariaren Lagundiko irakaslea Nikaraguan izan zen udan eta zubi lanak egin zituen. Besteak beste, liburutegia, farmazia, sukaldea, logelak eta jardinak egin ziren. Gupinol, Granada hiriko auzune batean dago eta bertan 7.000 bat lagun bizi dira. Gehienak langabetuak dira.



Eguzkialdeko txaleta bota zen abuztuan

Oporretan herrian normalean baino jende gutxiago zegoela aprobetxatuz, Eguzkialdeko txaleta bota zen abuztu erdialdean. Fraiskozuri plaza eta Irizar kalearekin ezkina egiten duen lursail horretan etxe berriak egiteko lanak azaroan hasi ziren.

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Kiñu

ARGAZKIDENDA

Urte berri on!!

Barrenkale, 35 Telefonoa eta Faxe: 76 58 05

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



UNEDen berregituraketa

Bergarako UNED zuzentzen duen Patronatuak uztailean hartutako erabakiaren berri izan genuen irailean. Berregituratze horren arabera, Euskal Kultura Departamendua itxi eta UNEDeko ikasleen plantila murrizteko (bi urteko epean 33 ikasletatik 12ra pasatuz) asmoa azaldu zuen Patronatoak. Horren aurrean, Juantxo Madariaga UNEDeko zuzendariak dimisioa aurkeztu zuen uztailean eta Patronatuak (Gipuzkoako Diputazioa, Bergarako Udala eta Kutxa) berregituratze plana aurrera eramateko gerente bat izendatu zuen urrian.

ESAN ZUTEN...



JOSU ZEZIAGA


"Trikiti lehiaketetan arauak zehaztea komeni da epaileek eta trikitilariek jakin dezaten zer baloratzen den"

TRIKITILARIA

AMAIA ZABALET

"Daukagun arazo nagusietakoa da toki askotan emakumea ez dela langile kontsideratzen"

ABOKATUA



MARTIN EGAÑA


"Duela bost urte Irizar eta biok zirkuitotan hasi ginenean, Euskadi mailan beste inor ez zebilen"

KARRERETAKO PILOTUA



San Martin jaiak

Ohikoa den bezala danborrada eta suzko erroberak izan ziren aurtengo jaietako ekitaldirik nabarmenenak. Kanpotar ugari ibili zen kalean. Eta San Martinen atarian, irailaren 9an izan zen barazki, lora, fruitu eta gazten lehiaketan ere jende pilo gerturatu zen San Martin plazara.




Barrenkale, 16

☎ 76 20 66



ARGAZKI



M O T Z E R N

TELEFONICARI ERASOA

Irailaren 5ean, goizaldean, ezezagun batzuk su eman zioten Telefonikak San Lorentzoko Industrialdean duen garajeari. Ondorioz, furgoneta bat kiskalduta geratu zen eta beste batek kalte de-xente izan zituen.

**EPAIKETA BERGARAKO
4 PRESORI**

19 urte eta 4 hilabeteko gartzela zigorra ezarri zien Jabi Lazkano eta Iñaki Arietalea-nizbeaskoa bergararrei ETA-ko kide izan eta hainbat en-presariri txantxia egiteaga-tik. Luis Etxeberriari 18 urte-ko gartzela zigorra ezarri zion epaileak delitu beraga-tik eta Jose Ramon Aiastuik, berriz, sei urtekoa aurrekoe-kin kolaboratzeagatik.

FUTBITO ELKARTE BERRIA


Lagunak Areto Futbola el-karteak sortu zen, Labegarai-etako futbito txapelketa antolatzeko.

**TELEFONIA MOBILERA KO
ANTENAK**

Lamariano Etxeberri eta Un-tzeta baserri inguruetan Air-tel telefonía mobil enpresak antenak jartzeko baimena ematea erabaki zuen Uda-lak. Aurretik, baimen barik hasitako lanak geldiarazi zi-tuen Udalak.

EUSKALTEGI BERRIA

Akulu AEK euskaltegia inau-guratu zen irailaren 29an.



Sinatze ekitaldian Lola Valverde Eusko Ikuskuntzako Gipuzkoako Presidentea, Victoriano Gallastegi Alkatea eta Koldo Pereira Kultura Zinegotzia izan ziren.

Eusko Ikaskuntzaren eta Udalaren arteko hitzarmena

Eusko Ikaskuntzak eta Berga-rako Udalak hitzarmena sinatu zuten irailaren 26an. Akordio horren arabera, Eusko Ikaskun-tzak Zerrajerako artxiboa antola-tu eta sailkatuko ditu. Lan hori egiteko Udalak beka bat sortu eta ordainduko du eta Eusko Ikaskuntzak bekaren jarraipena egingo du.

Bestalde, Udala Eusko Ika-skuntzaren bazkide kolektiboa izango da eta urtero 350.000 pe-zeta emango dio.

Horren truke, Eusko Ikaskun-tzaren argitalpenen bilduma osoa jasoko du Udalak eta urte-an behin kultur ekintzaren bat antolatuko du Eusko Ikaskun-tzak Bergaran.

P R O T A G O N I S T A K




JOSEBA LIZARRALDE

30 urteko baserritarra, Elosuko auzo alkate izendatu zuten auzokideek eta Bergarako alkatearen oneritzia jaso zuen

ARANTZAZU LOIDI

28 urte. Udaleko Euskara Zerbitzuko itzultzaile laguntzaile lanetan ekin zen irailean. Arantzazu bertsolaria da eta Arrasate Presseko zuzendaria izan zen joan zen urtera arte.



ELSA MANSO

28 urteko bergararra, Daniel Calparsoro zinegile donostiarraren "Pasajes" filmea errodatzen hasi zen irailean. Produzko lanetan jardun du.



Era guztietako marrazkiak inprimitzen ditugu. Argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloí edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzén ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorra, agendak...

San Lorentzo, 7 behea ☎ 76 50 39

URTE BERRI ON!!


1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa

"BEDELKARREN EZ DAUDEN MERKATARIEI ANIMATZEKO ETA ELKARTEAN SARTZEKO GONBITEA LUZATU NAHI DIET"

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



RAFA HERRAN, Bedelkarreko presidentea

"Hirigintza planean merkataritza sartuta dago"

Bedelkar lehen urratsak ematen hasi zenetik bi urte t'erdi pasa dira. Denbora honetan elkartekideek merkatarientzako ikastaroak eta erosleak erakartzeko diren zenbait ekintza antolatu dituzte: zozketak, erakusketak... Bedelkar, Bergarako merkatarien elkartea, egiten ari den lanaz eta orain artekoaren balantzeaz hitzegin dugu Rafa Herran, elkarteko presidentearekin.

Zenbat merkataria zaudete une honetan Bedelkarren?

- 220 denda daude Bergaran eta 108 daude elkartean sartuta. Gure asmoa gehiago izatea da.

- Orain arte zer egin duzue?

- Alde batetik merkatariorok beharrezko genituen zenbait ikastaro egin ditugu: eskaparateez, gestioaz, marketingaz... Kataluniako hainbat adituk emandako jardunaldi batzuk ere anto-

"Duela urte batzuk garai onak bizi izan genituen, baina orain hipermerkatuak tarteko, zenbait merkatarik nahikoa lan dute aurrera egitearekin"

latu ditugu. Bestetik, herriari begira, herritarrari Bergarako merkataritza bizirik dagoela eta gurekin konta dezala jakinarazi nahian, besteak beste, zozketak egin ditugu, San Martin aurreko azokan odolosteak banatu, baina duda barik arrakastarik handiena izan duena Bergarako margolarien kuadroekin eskapara-teetan egindako erakusketa izan da.

- Zein behar duzue merkatoriok?

- Duela urte batzuk garai onak bizi izan genituen, baina orain hipermerkatuak tarteko, zenbait merkatarik nahikoa lan dute aurrera egitearekin. Hori dela eta behar bezalako legea behar dugu margenak-eta erregulatzeko. Bestetik, politikoen edo erakundeen laguntza behar dugu merkataritza hirigintzako planetan sartzeko. Izan ere, hirigintza ez baita bakarrik bideak,

etxeak... herriari bizitza eman nahi bazaio, merkataritzak garrantzi handia duelakoan gaude.

- Laguntzarik jaso duzue?

- Bai, alkatearekin bilera eginga dugu eta Udalak jarrerara ona du. Azterketa batzuk eginak ditu eta etorkizunerako egindako hirigintza planetan merkataritza sartuta dago.

- Zein da orain artekoaz egiten duzuen balantzea?

- Guztiz positiboa, dudarik gabe. Hasteko, lehen merkatoriok ez genuen harremanik, are gutxiago kompetentziakook, orain, ostera, denok hitzegiten dugu elkarren artean. Beraz, Bedelkar merkatoriok elkartu gaituen lokarria da.

- Beharrezkoa iruditzen zaizue merkatarien elkarte bat egotea?

- Ezinbestekoa da. Gainera aukera aprobetxatuz,

Bedelkarren ez dauden merkatariei ere animatzeko eta elkartean sartzeko gonbitea luzatu nahi dicit. Bedelkarren egoteak lana eskatzen du, erantzunkizunak, kuota ordaindu beharra... baina merkatori guztion onerako da eta zenbat eta gehiago egon, gure lana hobea izango da.

- Bukatzeko, etorkizunera begira zein asmo duzue?

- Herriari zerbitzu on bat eman eta aurrera egin nahi badugu, gero eta profesionalagoak izan behar dugu. Horretarako lanean jarraituko dugu. Horretaz gain, hemendik aurrera Bedelkarreko dendak zeintzuk diren eta zeintzuk ez gehiago desberdintzen saiatuko gara.

Merkataritzaren kostuak merkaten ere ahaleginduko gara eta merkatarientzat aseguero onak lortzen ere bai.

XAMARTIN KIROLAK

IBARGARAI, 20

☎ 76 59 29

BERGARA

- Mendi • Hondartza • Gimnasia •
- Zikloturismo • Ehiza • Arrantza...

Dena kirolarentzako!!

Urte berri on!!



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). Telefono mobila: 908 77 17 32. ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala). Telefono mobila: 908 77 17 32. ☎ 76 43 29
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPIZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Postura bereziketa orokorral) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL Jose Jabier - Boni Laskurain 1, 2.A. ☎ 76 15 74
- AZPEITIA Irupe - Agorrozingo udal igerilekuak. ☎ 76 20 51
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotr.) - Simon Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA ZABALA, Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

Gazte batek gaztediari

AINHOA AGIRREAZALDEGI



Joan zen igandean "hogeigarren mendeko/bukaeran gaude..." zioen puntua jarri zion gaijartzaileak Gipuzkoako bertsolari txapeldun berriari. Mendek adina urte ditu txapeldun honek, eta bere erantzuna garbia izan zen: "...horra hor hogeigei mende/ezer egin gabe".

Susmo berbera daukat nik ere orokorrean gaztedia guztia-rekin. Denbora aurrera doa, hogeita batgarren mendea ere gainean dugu, eta aurrera egin ordez atzera goaz. Karamaroen antzera. Atzera. Mendek gehitxo direla eta, hamarkadatar mugatuko dut denbora. Neuk ere osorik bakarria bizi izan dut oraingoraino. Baina gaur egun komunikazioak oso ondo, ondoegi funtzionatzen du eta gure belarri eta begiek ere izan dute gure aurrekoen ibileren berri.

Zorionez, garaiak aldatu egin dira. Baina baloreak ere bai, zorritzarrez. Bada, hona hemen azken aldian neure buruari sarritan egin diodan galdera bat: "Ba al dago bizitarik heriotzaren aurretik?"

"Kuadrilak, definizioz, pertsona indibidual batzuen multzo imajinarioak besterik ez dira. Greenwich-eko meridianoa bezalaxe"

ere, dibertitzeko era oso mugatuak dauzkagula deritzat gaur egun. "Legeak ez daitezela gure

dibertsioentzat oztopo izan". Ez horixe!

Talde lanak ere desagertu dira. Kuadrilak, definizioz, pertsona indibidual batzuen multzo imajinarioak besterik ez dira. Greenwich-eko meridianoa bezalaxe. Hau garbi ikusten da eguneroko "bizitzan". (Egunerokotasunean). Bakoitzak berea. Bakoitzak bereari. Ekintzak antolatzerakoan ere orijinaltasunak toki gutxi du gure buruetan. Betikoa da politena. Eta antolatzeke errezena. Hori bai, diru gabe ez goaz inora. Hankak ez ditugu beti lurrean izango, baina plan guztien oinarri pezeta da. "Eta bakarrarekin ezin da ezer egin". Izan gaitezen kontsumista!

Egia esan ez zait iruditzen gaur egungo gaztediaz iritzi bat ematerako orduan egokiena naizenik. Eta kritika konstruktiboak positiboa eta negatiboa, biak batera dituztenak direla esan izan dut beti.

Horregatik, hain beltz margotu dudan gaztedia hau, kolore ilunekin ere margo lezake, hala nahi duenak.

Baina marrazten ondo dakienari hauxe besterik ez diot esango: "hil arte bizitzea ez da erreza". Eta izarra ere ez da izar, argirik egin ezean.

1 9

9 5

abenduak 29 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa

Arruriaga, 1 behea ☎ 76 58 16

ELKAR Fotokopiak

URTE BERRI ON!!

Fotokopiak koloretan

Plastifikazioak

Enkuadernazioa

Jendearentzako faxa

Nola joan zaizu urtea?



Marisa Coranti
37 urte, langilea

"Ondo esan behar. Orokorrean dena ondo joan zait, ez daukat inongo kexarik"




Ignacio Aristi
34 urte, langilea

"Pertsonalki oso ondo joan zait. Lan mailan urte oso produktiboa izan da eta beste arlo batzuetan ez da ez okerragoa ezta hobea izan"



Clementina Sánchez
59 urte, etxeakoandrea

"Ondo. Seme-alabak onak ditut eta osasun aldetik ere ondo nabil. Oroitzapenik onena? Iloba bat izan dudala."



Eneko Altube
29 urte, langilea

"Lanean ez daukagu kexarik momentuz eta bizimodua ondo doa. Gertatu zaidan gauzarik onena? Alaba bat izatea. Ez daukat oroitzapen txarrik aurten"



Marisol Torres
26 urte, langilea

"Ondo. Arlo guztietan ondo joan zaizkit gauzak. Ez daukat oroitzapen berezirik baina dena ondo irten zait"



Borja Peña
12 urte, ikaslea

"Bueno, bastante ondo. Ikasketak nahiko ondo, kirolean ere bai... ondo pasatu dut"



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

Fleming Doktorea, 5 ☎ 76 19 94

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Urte berri on!!

Zer eskatzen diozu 96ari?

1 9
9 5



Saioa Iglesias
16 urte, ikaslea

"Gauzak hobeto irtetzea eta kurtsoa aprobatzea, besterik ez. Nobixua? Bueno, nobixua topatzea ez litzaidake arduratuko".




Iosu González
12 urte, ikaslea

"Dena ondo joatea: kirolean, futbolean, partidua ondo jolastu eta irabaztea eta nota onak ateratzea"



Remigio Cid
55 urte, langilea

"Lehenik eta behin loteria tokatzea eta guztioi bizitza ondo joatea, horrekin konformatzen naiz"



Antonio Rodríguez
54 urte, langilea

"Aurtengoa baino okerrago ez joatea eta gaur egun bizi dugun egoera konpontzea, komeni da eta"



Almudena López
18 urte, langilea

"Loteria tokatzea eta guztiok zorientsuago izatea. Lan gehiago egotea jendearentzat..., horrelako gauzak eskatuko nituzke"



Dioni Arriolabengoa
82 urte, etxeakoandrea

"Pakea guztiondako eta osasuna izatea, horrekin konforme geratuko nintzateke, datorren urterako besterik ez dut eskatzen"

abenduak 29 • BERRIGARA • urteari errepasoa




- Sukaldeak • Horma-armairuak •
- Neurriera egindako altzariak •
- Ateak eta leihoak • Arozlanak •

Urte berri on!!

ERAKUSKETA: Arruriaga 3, behea ☎ 76 58 86

Mikel Laskurain aktoreak urte oparoa izan du amaitu berri dena. Bergararra telebistako aurpegi ezaguna bihurtu zaigu *Goenkale* telesailan (*Felix*) eta *Baietz barrez lehertu!* (Taxi eroa) saioan landutako pertsonaiei esker.



"GOENKALEKO AZKEN KAPITULUA
BEHARBADA EKAINEAN GRABATUKO DUGU"

MIKEL LASKURAIN, aktorea

"Goenkaleko Felixek badauka Mikelen antzik"

Zer suposatu du zuretzat Goenkaleren arrakastak?

- Susto ederra! Egia esan, ez genuen espero horrelako arrakastarik izatea. Hasieran gainera ez zara konturatzen, beste lan bat bezala egiten duzu eta kitto. Baina derrepente jendeak kalean ezagutu eta agurtu egiten zaitu eta oso fuertea da hori. 15 eguneko epean ezagunak ginen Euskal Herri osoan eta horrek bere alde onak baditu, bai-

na txarrak ere bai. Umorez ez zaudenean ere jendeari kaso egin behar izaten diuzu eta nahiko nekagarria da hori. Alde onak? Gure ofizioan ezaguna izatea garrantzitsua da, lan egiteko ate asko irekitzen dizkizu aurpegi ezaguna izateak.

- **Dagoeneko 267. kapitulua errodatu duzue. Noiz arte jarraituko du Goenkalek? Nola amaituko da?**

- Bueno, hori ezin da esan, oraintxe bertan seku-

lako kakanahastea dagoelako. Baina azken kapitulua beharbada ekainean grabatuko dugu. Dena den, hori audientzien arabera izaten da askotan eta ikusi egin behar.

- **Goizean goiz hasten zarete errodatzen. Gortutza horretarako egoten da?**

- Goizeko 7.30etatik arratsaldeko 3retara egoten gara estudioan eta nahiko gogorra da bai. Kontutan izan egunero kapitulu bat

"Urtean gertatu zaidan gauzarik onena? Atxagaren "Henry Bengoa Inventarium" estreinatzea eta urte berriari zer eskatzen diodan? obra honekin 100 bat emanaldi egitea"

grabatzen dela, 7 eguneko atzerapenarekin emititzen direlarik. Nahiko gogorra da hain goiz hasia eta gorputza martxan jartzeko eta batez ere ahozkerak hobetzeko ariketa batzuk egin behar izaten ditugu.

- **Felix zure pertsonaiarekin identifikatzen zara?**

- Badauka nere antza bai. Hori beti esaten da, aktorea eta bere pertsonaia neurri haundi batean identifikatzen direla. Azken batean egunero pertsonaia bera landuta ezinbestekoa da antzekotasuna eta pertsonaiarekiko lotura.

- **Zeinekin geratuko zinateke, Goenkaleko Felix ala taxista eroarekin?**

- Biekin oso gustora ibili naiz. Taxi eroarena oso dibertigarria izan zen. Lau hilabeteko atzerapenarekin hasi ginen emititzen eta grabatzerakoan hain ezaguna ez nintzenez, primeran

pasatu genuen jendearen erreakzioarekin. Jendeak umore ona azaldu zuen. Erreakzio txarren bat? Ez, ke ba. Gainera igarri egiten duzu jendea noiz hasten den berotzen. 36-37 gradutako tartean mantendu behar dituzu, bestela kalentura dator. 37 gradura igotzen denean, pixkat jeisten duzu eta kitto. Horrekin jokatu behar duzu, bestela akabo.

- **Orain Hika taldearekin "Henry Bengoa inventarium" estreinatu duzue. Nolako harrera izan du?**


- Getxon estreinatu genuen eta harrera ona izan zuen. *Egunkarian* ere kritika ona egin ziguten eta badirudi jendeari gustatu zaiola. Bernardo Atxagaren testua guztiz errespetatu dugu eta antzerki errezital moduko bat da, poesia ere tartekatzen baita. Bi lagun Henry Bengoaren bila joan dira Alemaniara, Hambur-

gora, eta ez dute Henry Bengoa aurkitu. Orduan, bere apartamentuan, inventario bat egiten hasi dira. Pista batzuk ematen dira eta bakoitzak erabaki behar du Henry Bengoarekin zer gertatu den, bukaera irekia da. Guk gure bertsioa daukagu baina bakoitzak ikusiko du... Bergaran izango garen? Ez dakit, bidali diegu gure publizitatea eta erantzun baten zain gaude. Oraingoz, urtarrilaren 21ean Donostiako Victoria Eugenia izatea konfirmatuta daukagu.

- **Bukatzeko, zer izan da 1995eko gauzarik onena? Zer eskatzen diozu urte berriari?**

- Ez dakit zein izan den urteko gauzarik onena, K.O. utzi nauzue. "Henry Bengoa inventarium" estreinatzea beharbada eta urte berriari "Henry..."rekin 100 bat emanaldi egitea eskatzen diot.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



Kutxa fundazioa

1 9
9 5

abenduak 29 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepassoa



Estepan Plazaola, Koldo Pereira eta Pili Azkaratek aurkeztu zuten kanpaina.

Euskara merkatal mundura

Euskara merkatal mundura kanpaina aurkeztu zen Udaletxean urriaren 25ean. Plangintza hau iaz jarri zen martxan Gipuzkoako 6 herritan eta aurten Bergarara heldu da. Helburu nagusia herriko dendetan euskararen presentzia indartzea da. Horretarako, orain dela bi urte herriko 450 komertzio aztertu zituen eta azterketa horren arabera, herriko dendarien %65ek euskara menderatzen du. Aurrerantzean euskara erabilera bultzatzeko 30 orduko merkataritzako euskara ikastaroak antolatuko ditu Udalak dendarientzat.

ESAN ZUTEN...**MIREN AZKARATE**

"UNEDeko EKDn urteotan egindako lana zapuzteak kalte izugarria egingo dio euskarari zalantzarik gabe"

EUSKALTZAINA**LUIS EZENARRO**


"Europar 3.000 perretxiko ezberdin daude eta Euskal Herrian 1.500-2.000 inguru sailkatu dira"

MIKOLOGIAN ADITUA**JERARDO ELORTZA**

"Guk egiten dugun eskaintza oso leku gutxitan egiten da. Beraz, ez dago duplikaziorik"

**UNEDeko EKDKO
IRAKASLEA****Elosuko
Ganadu Feria**

150 ganadu buru eta 85 salmenta postu izan ziren Elosuko ferian urriaren 12an. 4.000 lagun inguru bildu ziren, antolatzaileen esanetan. Epaimahaiak goraipatu egin zituen lehiaketetara aurkeztutako abereen maila.

**Seminarioko
museoa**

Erret Mintegiko zientzia bildumako hainbat pieza izan ziren ikusgai Kultur Etxean urriaren 27tik azaroaren 19ra bitartean. Zientzia aparailuak eta zoologia, mineralogia eta paleontologia saileko piezak erakutsi ziren.

**NINIKA**LOREAK MUNDU
OSOAN

INTERFLORA

loradenda*Urte berri zoriontsua izan dezazuela!*

MOTZEA N

**BI HILDAKO KOTXE
ISTRIPUAN**

Jose eta Martina Olañeta anai-arrebak urriaren 4an, gaez, Eskoriatzan gertatutako kotxe istripuan hil ziren. Josek 57 urte zituen eta karmelitarra zen. Martinak, berriz, 61 urte zeuzkan eta Eibarrera ezkondu zegoen.

**AGARREKO GARAIXEA
GAIXO**

Agarreko garaixearen behaldea onddoz kutsatuta zegoela ikusita, garaixearen inguruko ikerketa egitea erabaki zuen urriaren Udalak. Inaki Aspiazu arkitektoak eta Xabier Aranburu udal museologoak izango dute ikerketa egiteko ardura.

**UDAL ZERGA ETA
TASEN IGOERA**

Udal zerga eta tasen igoera onartu zuen urriaren 16ko Plenoan Udaltzakoak. Hiruko gobernuko alderdien baiezko eta HBren kontrako botuekin %4,3 igotzea onartu zen.

SUTE IKUSGARRIA

Sute ikusgarria izan zen urriaren 20an Burdiñateko garajeetan. Kotxe batek sua hartu zuen motorra erre ostean eta suhiltzaileek, ertzainek eta udaltzainek sua itzaltzen jardun zuten. Hainbat milioitako kalte materialak izan ziren sutearen ondorioz.

**Bergar bat eta bi antzuolar atxilotuak**

Inaki Arenaza 25 urteko bergararra eta Juan Jose Aranburu eta Patxi Olabarria antzuolarrak atxilotu zituen urriaren 24an Ertzaintzak Bergara eta Antzuolan. ETaren kolaboratzaile izatea leporatu zien Ertzaintzak eta Arkautera eraman zituen. Bertan hiru egunez deteniturik izan ondoren, Madrileko Entzutegi

Nazionalera eraman zituzten eta handik Alcalako espetxera Inaki Arenaza eta Patxi Olabarria eta Langraitzera Juan Jose Aranburu.


Bergara eta Antzuolan atxilotuaren kontrako protesta ekintzak izan ziren. Bergarako Udalteixe atzeaidean, Ertzaintza eta atxilotuaren kontrako pintadak agertu ziren.

Hiru atxilotuak oso ezagunak ziren Bergara eta Antzuolan. Inaki Udaltzako Txistulari Bandako eta Xamatzeko kidea zen. Patxi, berriz, Bergarako Udaltzako Musika Bandako eta Juan Jose, Antzuolako Idolaz euskara elkarteakoa.

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa

P R O T A G O N I S T A K

**ASIER GARITANO**

27 urteko futbolaria bergararra Cádiz taldeetik kanporatua izan zen beste lau jokalarirekin batera. Kasua argitzeko epaitegietara jo behar izan zuen.

**NEKANE
GABILONDO**

20 urte. Jardun Elkarte
Gaztetxoaren Taldeko dinamizatzaile berria izendatu zuten urriaren. Gizarte Lana ikasketak burutu ditu.

**ASIER ALTUNA**

26 urteko bergararra La Cuadrillaren "Matías juez de línea" filmea errodutzen jardun zuen Galizia aldean. Irudi eta Soinu ikasketak eginak ditu.

**1996an zoriontsuak
izan eta urte berri ona
izan dezazuela**



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Matxiategi, 5 ☎ 76 57 41 - 76 57 42
Fraiskozuri, 4 ☎ 76 13 41 - 76 18 42

1 9
9 5

abenduak 29 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa



1.000 bat lagun bildu ziren azaroaren 11n UNEDen aldeko manifestazioan. Abenduan beste manifestazio bat egin zen.

UNEDen aldeko manifestazioa

Mila lagun inguruk hartu zuten parte azaroaren 11n UNEDen aldeko Herri Plataformak deitutako manifestazioan. Manifestazioa isilean egin zen eta amaieran manifestu bat irakurri zuten UNEDeko balkoitik, zentruko bi irakaslek, Euskal Kultura Departamentuaren eta bere ihardueren jarraipena eta UNED dinamiko eta indartsu bat aldarrikatuz. Manifestua 5.000 bat lagunek sinatu zuten. UNED zuzentzen duen Patronatuak, berriz, gerente bat izendatu zuen berregituraketa aurrera eramateko.

ESAN ZUTEN...



JON LAZKANO


"Trekking-ak dirua ateratzeko eramaten ditut. Niri gustatzen zaidana eskalatzea da"

ESKALATZAILEA

MARIA JESUS UGALDE

"Gazteak animatu nahi nituzke Orfeoira etortzeko. Probatzen badute gustatuko zaie"

MUSIKA IRAKASLEA



JOSE ANTONIO ZABALA

"Herri juradoak ez luke epairik eman behar, iritzia baizik"

BERGARAKO ALKATE OHIA ETA ABOKATUA



Plenoan Senideak taldeko kideen eta alkatearen arteko eztabaida gogorra izan zen. Itxuraz, EAJk eta Senideak-ek, biek adostutako mozio bat aurkezteko asmoa zuten, baina azkenean ez zuten akordiorik lortu.

Presoei buruzko bi mozio aztertu ziren

Presoen inguruko bi mozio aztertu ziren Plenoan azaroaren 27an. EAJk aurkeztutakoa hiruko gobernuko alderdien botuekin onartu zuten. Bertan ETari eta MLNV delakoari biolentzia uztea eskatzen zitzairen. Bestalde, presoak gerturatzea eta baldintzapeko askatasuna lortzeko beharrezko gestioak egiteko konpromezua hartu zu-


en Udalbatzak, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeari ildo bereetik lan egiteko eskatuz.

Aurretik HBren mozioa aztertu zen. Bertan, PSOE eta EAJren dispersio politika eta Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen efikazia eskasa salatzen zen. Era berean presoen herriratzea eskatzen zen. Mozioa ez zen onartu.



GIZON

**Aprobetxa ezazu orain
markako bakeroen promozio berria**



Barrenkale, 35 BERGARA



F O T O Z E A R N

EREMU MEGALITIARRAK ERREKUPERATZEN

Kapirixo elkarteak bultzatuta, Azkoitia, Bergara eta Soraluze artean dauden 16 eremu megalitiarrak berreskuratzeke auzo lanean jardun zuten hainbat herritarrek azaroan zehar.

JUSTO GARATE BEKA

Justo Garate bekaren lehen deialdiko lana aurkeztu zen azaroaren 3an Udaletxean. Rosa Ramos Alfarok "Nafarroako egoera demolinguitikoa eta funtzionala" izeneko lana aurkeztu zuen.

DEBA GARAIKO EUSKALGINTZA UNEDeko EKDren ALDE

Deba Garaiko hainbat euskara elkarte, Jardun tarte-an, eta erakundetako ordezkari eta langileek UNEDeko Euskal Kultura Depatamentuaren aldeko agiri bat plazaratu zuten azaroaren 7an, EKDK euskara eta euskal kulturaren alde egindako lana azpimarratuz.

BERGARAR UGARI BEHOBIA-DONOSTIAN

Bergarar lasterkarien presentzia nabarmena izan zen azaroaren 12an korritu zen Behobia-Donostia antxintxika proban. 100 bat bergarar iritsi ziren helmugara eta denborarik onena Manuel Aranburuk egin zuen (1 11' 15").




Udal Pelotalekuko berritze lanak amaitu ziren

Ekainean hasi ziren Udal Frontoiko berritze lanak azaro amaieran bukatu ziren. Jaurlaritzako Herrizaingo sailak joku eta ikuskizunetarako duen araudia bete ahal izateko beharrezko lanak egin, frontoiko paretak berdez pintatu eta errebotea egin zen.

Deba ibaia garbitzeko depuradora

Diputazioak eta Ur Kontorszioak Gipuzkoako erreka garbitzeko prestatu duten egitasmoaren berri izan genuen azaroan. Besteak beste depuradora bat jarriko da Mekolalden.



Lehortearen eragina

Udazkeneko euri ezak lehortea areagotu zuen eta arazoak izan zituzten herriko hainbat baserritan. Udalak eta Garbile enpresak ura eraman behar izan zuten baserrietako depositotara.

MEZULARIAK • PAKETERIA GARRAIOAK • ZERBITZUAK

BERGARA ☎ 76 48 29

Mobilak: (908) 77 33 91 / 87 52 94

Bergatrans

erlojudenda

i RUDI i

bitxidenda

Konponketetarako tailerra daukagu

Ibargarai, 2

☎ 76 51 65

Barrenkale, 24 BERGARA

Telefonoa: 76 10 16


Zubikua

MILA ESKER urte hauetan guregan jarritako KONFIDANTZAGATIK. Gure aldetik, egunetik egunera ZERBITZU HOBEAK eskaintzen saiatuko gara.

Urte berri on izan dezazuela, eta adi urtarrileko beherapenei

Goi mailako kirolariak sasoi onean

GERARDO PUENTE



Ezin da esan 1995a Bergarako goi mailako kirolarientzat txarra izan denik. Txalo zaparrada galanta banatzeko moduko urtea. Benetan. Txalotzekoak, lehenengoz, gure pilotuak. Hauetakoren bati nongoa den galdetzen diotenean, galderaren egilearen aurpegia ikusi behar izaten da. Zergatia jakin gabe, Bergarako pilotuen ospea Espainia osoan ez da txantxetako kontua. Egaña, Zabaleta edo Irizar abizenek errespeto handia sortzen dute automobilismo munduan.

Aitor, hainbat alditan, nik-ez-dakit-zenbat-aldiz txapeldun izatekotan geratu zaigu, eta aurten bai, aurten txapela jantzita etorri zaigu. Txalogarria. Bazen ordua, motel!

Martin Egañak, kostata pentsa zezakeen 1987an zirkuituetara jo zuenean azkenean txapeldun izango zenik. Txalogarria. Askotxo ginen Martinengan fededunak, eta ez genbiltzan oker. Orain, Juanek, bere anaiak, hartu beharko dio errelebuak. Aurtengoa ere ez da Pablo Irizarren urtea izan. Suerter txarra aitzakitzat erabili duela

"Aitor, nik ez dakit-zenbat-aldiz txapeldun izatekotan geratu zaigu eta aurten bai, aurten txapela jantzita etorri zaigu"

pentsatu edo esan duenari (ez dut üste hori pentsatzen duen askotxorik dagoenik), lasterketa buruan dagoela

kanbioa eskuan geratzen zaioneko aurpegia ikusi behar. "Pole" egile fina, lasterketa bat irabazi du.

Txalo gehiago. Agustin Aranzabalentzat mordoska orain. Realza-leek ez dute Agustin gaztearen

meritoen zerrenda gogoratu beharrik, baina lehen mailako jokalarien artean leku bat lortzea, titular izanez bere taldean, eta gainera, Javier Clementeren selekzioarekin, selekzio nagusiarekin, debutatu izana, txalo egiteko moduko arrazoiak dira.

Jokin Etxaniz eta Joxe Mari Zezeagari beste txalo zaparradaxo bana bidaltzea ezinbestekoa da. Joxemari, askoren ustetan, urte osoko lana ikusirik atzeko koadroetan dagoen pelotaririk onena da. Sasoiaren dagoenean halako gizon pusketa baten zartakoak beldurgarriak dira, eta sasoiaren ez dagoenean ere bai. Unanue eta bera eskuz binakako txapela irabaztekotan izan ziren. Hemendik aurrera ere ez zaio aukerarik faltako, Jokin Etxanizi ere falta izango ez zaion bezala.


Jokin GRAVNeke maila guztietan txapeldun izan bada, egongo da horretarako arrazoirik. Lesioen mamua inguruan izan duen arren, zorionez sasoiaren berriz. Fernando Arretxe ez da binakako txapela irabazteko lagun txarra. Askotxok hala uste du. Ez ote da hasi berria den txapelketa hau Bergara aldera etorriko? Batek daki.

Ezin, jakina, Iñigo Igartua ahaztu. Orain urte batzuk Zarautzen, Superprestigioko izarren artean nahastu zen hura gogoan dut oraindik.

Orduan hartutako mailara itzuliko den esperantza ez dugu oraindik galdu.

Espainia mailan ziklokrosaren beherakada nabarmena salbatzen duten bakarrak euskaldunak dira gehienetan, eta horien buru, Iñigo Igartua.

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



MARISKO HAZTEGIA

ITXAS
EDER

ARRAINAK


Primitiva Morenoren oinordekoak

Arrain freskoa eta izoztua
Mota guztietako mariskoak

Mintegi kalea. Tfnoak: Arrandegia: 76 47 41
Etxea: 76 21 08 • Mobila: 908 77 04 88

Francisco Alonso Burgosen jaioa da, baina gaztetan Bergarara etorri zen Vergaresan txapista lanak egitera. 69 urterekin Behobia-Donostia korritu berri du eta bere asmoa gorputzak ahal duen bitartean aintxintxika egiten jarraitzea da.

"80 URTEREKIN BEHOBIAKO IRTEERAN IKUSI NAHI NUKE NEURE BURUA"



FRANCISCO ALONSO, korrikalaria

"Behobia-Donostia dagoen lasterketarik onena da"

Noiz eta zela hasi zinen kirola egiten?

- Gaztetan, 40ko hamar-kadan, ez genuen kirola egiteko aukerarik. Orduan lana zen garrantzitsuena eta nire lagunei kontatzen die-dan anekdota bat kontatuko dizut. Gaztetan 90 pza irabazten nituen eta pentsioa 107 ordaintzen nuen asteko, nik txapista lanak egiten nituen eta kotxea konpondu ondoren briloa atera eta garbitu egiten nuen

propinatxo bat lortzeko. Orduan nondik atera behar nuen denbora kirola egiteko?. Halere lan egoera hobetu ondoren 50 urte ingururekin korrika egiten hasi nintzen gorputzak eskatzen zidalako.

- Zer da zuretzat kirola egitea?

- Goizero aintxintxiketan egitera irtetzen naizenean, niretako dudan askatasunik handiena da. Inork ez dit agintzen zer egin behar dudan eta neure kasa ibil-

tzen naiz. Urte hauetan Bilboko maratonia birritan egin dut eta Donostiakoa 7 edo 8 aldiz egingo nuen. Azkena Donostian izan zen Munduko Kopan aritu nintzen eta ezin izan nuen bukatu. Baina etorkizunean 42 km eta 195 metroak egiteko asmoa dut. Behobia-Donostia azken bost urteetan egin dut eta aurrean ere han izan naiz.

- Askok esaten dute Behobia-Donostia lasterketarik onena dela, zer

"Lasterketetatik kanpo elkar ikusten dugunean bizitzaren inguruan hitz egiten dugu korrikalarion artean"

deritzozu?

- Niretzat dagoen lasterketarik handiena da. Hara umeak, nagusiak danetik joaten dira eta oso emozio-nantea da horrenbeste jende kamino ondoan animoak ematen ikustea. Lasterketaren ibilbidea buruz dakit eta ikusleek beti esaten didate "gutxi falta da" animoak emateko, baina bada-kizu 6 km edo falta direla eta horrek "oilo larrua" jar-tzen dit. Mirakruzeko gai-netik helmugaraino joatea bizitzan pasatu daitekeen gauzarik onenetarikoa da

- Beste lasterketaren batean parte hartuko zenuke, ez?

- Bai askotan, Elorrion, Arrasaten, Arrasatetik-Oñatira, Deban ere korritu nuen. Proba hau oso gogorra zen, zeren Debatik Mutrikuraino joan behar ginen eta hortik Kalbarioa igo ondoren Deban bukatzen genuen. Hain gogorra zen,

kendu egin dute. Orain Eibarretik-Debara egiten dute lasterketa eta nahiko deserosoa da. Horra joateko norbaitek lagundu behar dizu, herri batean hasten delako eta bestean bukatu eta erropa eta kotxea hartzeko beste norbait behar da. Herrian bertan egiten diren lasterketetara nire kotxean joaten nintzen eta kitto, baina orain...

- Lasterketetan giro berezia izango duzue korrikalarien artean.

- Bai, lagun asko egiten dut korrikalarien artean. Lasterketetatik kanpo elkar ikusten dugunean bakoitzaren bizitzaren inguruan hitz egiten dugu. Horrek ilusio handia egiten dit eta are gehiago daukadan adinarekin. Edade honekin gorputzak gelditzeko joera hartzen du, baina bakoitzak bere partetik zerbait jarri behar du gorputza ez gelditzeko. Nik bizi nahi dut eta barruko

instintuak bizitzeko gogoia ematen dit.

- Txoritxo batek pote-atzea gustokoa duzula esan digu.

- Bai, nik goizean ez dut txikiteatzen, baina iluntze aldean 6 txikito inguru hartzen ditut eta ostiraletan eta igandeetan kafe konpletoa hartzeko ohitura daukat, baina beti pasatu barik. Hori bai, goizero kirola egiten dut eta gainera erropa gutxirekin aintxintxika egiteko ohitura daukat. Neguan goizean guante batzuk jantzi, praka motxekin eta kamiseta batekin aintxintxika berotu ondoren zure inguruan dagoen goizeko ihintza ikusita, hori ez dago ordaintzerik!

- Kirola egiteko ba al dago edaderik?


- Ez, askok esaten didate, "zuk daukasun adinarekin", baina dudan adinarekin 25 urte izango banitu moduan aurkitzen naiz. Gainera txapista lanean asko mugitu behar izan dut eta horrek ere forman mantentzeko balio izan dit.

- 80 urterekin Behobiako irteeran?

- Bai, gustatuko litzaidake. Ondo nagoen bitartean izango naiz.

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Gasoil litro bakoitzeko 4 pezetarainoko deskontuak Real Automóvil Clubeko bazkideentzat

- Solred doaneko txartelarekin
- Gasoil litro bakoitzeko 4 pezetarainoko deskontua
- Repsol, Campsa eta Petronor-en 2.800 gasolindegietan
- Ordainketa hila amaitutakoan egiten da
- Fakturan zehaztasun guztiak agertuko dira, baita BEZa ere

Deitu 76 23 30 telefonora

Real Automóvil Club
Delegatua: Ramon Iraegi
Ramon Maria Lili, 6



1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Udal Pilotaleku berriztua inauguratu zen

Abenduaren 2an inauguratu zen Eskola dantza taldearen emanaldiarekin Udal Pilotaleku berriztua. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak joku eta ikuskizunetarako duen araudiari egokitu ahal izateko, sei hilabetez berrikuntza lanak egin ziren Frontoian. Anselmo Inurrategi arkitektuaren proiektuan oinarrituz, Arregi eraikuntza enpresak burutu zituen lanak. Besteak beste, argindarraren, uraren eta berogailuaren instalazio berria jarri zen, argiztapena aldatu, suteen kontrako neurriak hartu (larrialdietarako irteerak egokituz), taberna berria jarri edota aldagelak berriztu ziren. Kantxan, errebotea egin zen eta paretak berdez pintatu. Lanek 50 milioi pzta.ko aurrekontua izan zuten.

ESAN ZUTEN...



LIERNI IRIZAR

"Nire senarrak ez zuen HIESaren proba egin nire emaitzak jakin eta handik urte t'erdira arte"

SEROPOSITIBA

ALEX BARRUSO

"Eztabaidarako foro bat sortu nahi dugu, ideologia ezberdineko herritarrak bilduz"

ELKARRIKOA



IÑIGO IGARTUA

"Aurten prestaketa atzeratuta daramat hurrengo karreretan freskoago egoteko"

**ZIKLO-KROSSEKO
TXIRRINDULARIA**



Bergaratik Ruandara 5 milioi pezeta

Ruandarena alde egini-ko txakur leren espedizioan batutako 5 milioiak Ruandan 20 urtez misiolari izan den Ramon Amunarriz irundarrari eman zizkion Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak abenduaren 3an. Batutako diru hori Kigali Ruandako hiri-

burutik 20 bat kilometrora dagoen Kabuga eskualdean egin den zentro kulturala ordaindu ahal izateko bideratuko da.

Txakur leren espedizioan parte hartu zuten 46 udaletan Kabugako zentro kulturalaren proiektua era-kutsiko da.

Murillo Garajea

Automobilien konponketa

San Lorentzo-Leizeaga
Poligono industrial, 4
☎ 76 13 84

Urte berri on!!



IVECO

FURGONETAK
KAMIOLAK
Zerbitzu ofiziala

M O T Z E A N

**MARTIN EGAÑA
TXAPELDUN**

Martin Egaña pilotu bergararrak Espainiako AX GTI txapelketa eskuratu zuen abendu hasieran.

XAMATZEK 10 URTE

Xamatx dantza taldeak bere X. urteurrena ospatzeko jaialdia egin zuen abenduaren 16an Udal Pilotalekuan. Bertan Xamatzeko kide izan diren guztiek hartu zuten parte.

KANELA GARAILE

Kanela oparidendak irabazi zuen Eskaparate Lehiaketa. Bigarren, Ninika loradenda geratu zen eta hirugarren Casa Agirre.

**EKDko LANGILEAK
KANPORATUAK**

Juan Martin Elexpuru, Jerardo Elortza, Tere Irastorza eta Xabier Pardo UNEDeko EKDKo irakasleek kaleratze karta jaso zuten abenduaren 19an.

**IBARGARAIN ETXEAK
EGITEKO HITZARMENA**

Ibaragari aldean 350 etxebizitza eraikitzeko hitzarmena sinatu zuten Bergarako Udalak eta bost eraikuntza enpresek. 20-gunea bezala ezagutu den honetan, besteak beste, autobus geltoki berria eraikiko da, auditoriuma egingo da eta Arrizuri parkea txukundu eta parke publiko bihurtuko da.



Industrialdea egiteko hitzarmena sinatu zen

Abenduaren 28an sinatu zen Bergarako Industrialdea elkarte eratzeko hitzarmena. Sinatze ekitaldian SPRIko, Gipuzkoako Diputazioko eta Bergarako Udaleko ordezkariak izan ziren. Elkarrekin 10 milioi pzt.a ko kapitala izango du. SPRIk %51a jarriko du eta Diputazioak eta Udalak %24,5 bakoitzak. Zerrajerako orubeetan kokatuko da industrialdea eta 15.000 metro karratuko azalera izango du.



Berrigarak 5 urte

Berrigarak 5 urte bete zituen abenduaren 14an eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira abenduko azken astean. Abenduaren 26an, esate baterako futbolari buruzko mahaingurua antolatu zen, hurrengo egunean komunikabideei buruzkoa eta ostegunean, hilak 28, musikaren ingurukoa. Rock kontzertua ere izan zen Deabruak Teilatuetan eta Xabier Montoiarekin. Ekitaldietan jende askok hartu zuen parte.

1 9
9 5

abenduak 29 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa

- PAPERGAIAK
- LIBURUAK
- ALDIZKARIAK
- OPARIAK

Urte berri on!!

PEÑALBA

Irala, 17 ☎ 76 10 49

- LOTERIA
- KINIELA
- BONOLOTOA
- LOTERIA PRIMITIBOA

Ingelesa eta Frantsesa

**IKASTARO
INTENTSIBO
BERRIAK**

- Urtarrilaren 15etik aurrera
- Hiru hilabeteko iraupena
- Egunero bi ordu t'erdi
- Matrikula egiteko epea: Urtarrilak 8-12

HORREZ GAIN, BESTE IKASTARO BATZUK EGITEKO AUKERA:

- Maila guztiak
- Ume, gazte eta helduak
- Azterketa ofizialak
- Mintza praktika
- Eskolarako laguntasuna

**Informazio gehiago:
UNED (3. solairua)
☎ 76 06 87**



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

JAIOTAKOAK

URTARRILA

Eukene Labaka Garamendi. Urtarrilak 8
Mikel Mujika Lopez. Urtarrilak 9
Nahomi Estévez García. Urtarrilak 9
Silvia Novo Burgos. Urtarrilak 15
Mikel Vallejo Martín. Urtarrilak 18
Paloma Núñez Sánchez. Urtarrilak 9
Kelly Valor Guerrero. Urtarrilak 24
Asier Odriozola Casado. Urtarrilak 27
Maddi Txintxureta Agirregabiria. Urtarrilak 28

OTSAILA

Asier Alberdi Aranburu. Otsailak 3
Mikel Mengual Reyes. Otsailak 9
Uxue Olaziregi Alberdi. Otsailak 13
Josu Fernández Lasheras. Otsailak 14
Amaia Igartua Ugalde. Otsailak 20
Danel Cusi Idigoras. Otsailak 21
Nekane Ezkurra Aiaustu. Otsailak 22
Gillermo Regorigo Alonso. Otsailak 23
Manex Goiti Aiaustu. Otsailak 27

MARTXOA

Aitor Narbaez Oregi. Martxoak 2
Iker Horriño Fernández de Jauregi. Martxoak 6
Aitor Elizburu Sierra. Martxoak 8
Jokin Gómez Moreno. Martxoak 10
Iurdana Otermin Bergaretxe. Martxoak 20
Manex Azula Losada. Martxoak 21
Alejandro Martínez Román. Martxoak 24
Julen Irizar Laskurain. Martxoak 26
Sara Iturbe Madinabeitia. Martxoak 27

APIRILA

Odei Pérez Soriano. Apirilak 6
Idoia Regorigo Alberdi. Apirilak 11
P. Xabier Iñurieta Odriozola. Apirilak 15
Miren Azkarate Urrutia. Apirilak 16
Ainhoa Mujika Azpiazu. Apirilak 18
Ainhoa Etxeberria Olabarria. Apirilak 19
Miren Zubikarai Horriño. Apirilak 22
Jone Eguren Balzategi. Apirilak 26

MAIATZA

Olatz Ibañe Garitano. Maiatzak 1
Manex Larrañaga Eskarza. Maiatzak 3
Mikel Zulueta Prat. Maiatzak 9
Maite Zulueta Prat. Maiatzak 9
Cecilia Dulanto Arriola. Maiatzak 10
Maria Martínez Etxeberria. Maiatzak 18
Joseba Osa Arozena. Maiatzak 21
Danel Urzelai Labaien. Maiatzak 25

EKAINA

Ane Zangitu Martínez. Ekainak 1
Egoi García Garzo. Ekainak 2
Daniel Díez Larrañaga. Ekainak 3
Laura Frijas Gómez. Maiatzak 30
Leire Aguayo Arizaga. Ekainak 8
Oier Elorza Sadaba. Ekainak 15
Sergio López Hidalgo. Ekainak 18
Andrea de Jesus Borges Neves. Ekainak 9
Maite Alberdi Elkororibe. Ekainak 25
Lierni Azpeitia Iturbe. Ekainak 28
Julen Sanchez Osuna. Ekainak 28

UZTAILA

Josu Herrán Ugarte. Uztailak 5
Uxue Lazkano Dobao. Uztailak 5
Julen Etxaide Olabarria. Uztailak 9
Josu Marzo Elgero. Uztailak 15
Jasmine Forjan Fernández. Uztailak 14
Beñat Lizarralde Solana. Uztailak 19

ABUZTUA

Irati Lenisoro Hernández. Abuztuak 6
Nerea Etxaniz Zubizarreta. Abuztuak 6
Rafael Marcos Morales De Moura. Abuztuak 10
Aitor Kortabarria Iparragirre. Abuztuak 15
Marta Gómez Rodríguez. Abuztuak 17
Leire Aperribai Castillejo. Abuztuak 20
Ainhoa Mardaras Maiztegi. Abuztuak 20
Mikel Manso Fraile. Abuztuak 25

IRAILA

Mireia Santamaria Sanpietro. Irailak 3
Julen Jorge Gabilondo. Irailak 4
Danel Seco Solana. Irailak 5
Maider Uribe Isado. Irailak 5
Iñigo Agirrezabal Gilkiola. Irailak 13
Amaia Alzelai Gil. Irailak 14
Mikel Castro Novoa. Irailak 23
Ainhoa Sainz Santiago. Irailak 23

URRIA

Xabier Arrzabalaga Agirre. Urriak 2
Ainhoa Franco Arana. Urriak 7
Leire Altube Urkia. Urriak 8

Ainhoa zabaleta Velasco. Urriak 8
Andoni Najera Narbaiza. Urriak 27

AZAROA

Endika Gandiaga Conget. Azaroak 2
Ainhoa Lazkano Agirrezabal. Azaroak 5
Amaia Galarraga Maiztegi. Azaroak 12
Mikel Fernández Guridi. Azaroak 13
Iker Fidalgo Ballesteros. Azaroak 15
Unai Fidalgo Ballesteros. Azaroak 15
Gorka Fernández Goenaga. Azaroak 22
Maite Núñez González. Azaroak 27
Ane Motos Elizburu. Azaroak 26
Andoni Cuesta Sotos. Azaroak 28
Garazi Zabaleta Mendikute. Azaroak 30

ABENDUA

Iñigo Martínez Castro. Abenduak 7
Unai Egaña Morrás. Abenduak 7
Saioa Agirre Iturrikastillo. Abenduak 9
Txomin Larrañaga Zabala. Abenduak 11
Dorleta Narbaiza Urrestarazu. Abenduak 13
Jon Marzo García. Abenduak 14
Lide Madinabeitia Egia. Abenduak 19

HILDAKOAK

URTARRILA

Bonifacio Azkarate Gallastegi. Urtarrilak 1, 78 urte
Petra Martín Moreta. Urtarrilak 9, 83 urte
Celia Zabalauregi Mondragon. Urtarrilak 10, 75 urte
Mercedes Gorospe Muruamendiaraz. Urtarrilak 12
Teresa Benitez Izquierdo. Urtarrilak 22, 85 urte
Maria Luisa Igartua. Urtarrilak 22, 38 urte
Francisco Zangitu Leturiondo. Urtarrilak 29, 79 urte
Modesto Bengoa Bergaretxe. Urtarrilak 30, 95 urte

OTSAILA

Pantaleón Oregi Etxaniz. Otsailak 6, 72 urte
Markos Urriategi Maiztegi. Otsailak 9
Jose Benitez Izquierdo. Otsailak 9, 65 urte
Eugenia Aranzabal. Otsailak 11, 82 urte
Filomena Alcalá González. Otsailak 12, 81 urte.
Juana Jauregi Velar. Otsailak 13, 91 urte.
Alberto Ezpeleta Gutiérrez. Otsailak 15; 64 urte
Rakel Gómez Acebo. Otsailak 18
Karmen Agirrebeña Arriaran. Otsailak 18, 67 urte.
Kruz Gallastegi Intxausti. Otsailak 19, 75 urte
Jose Maria Suinaga Larrañaga. Otsailak 24, 34 urte.
Manuel Ocio Arriola. Otsailak 25, 79 urte

MARTXOA

Concepción Narbaiza Goenaga. Martxoak 1, 67 urte
Vicente Alerdi Sorasu. Martxoak 3
Andres Zabaleta Pildain. Martxoak 5, 64 urte
Bernardo Urrutibeaskoa. Martxoak 6, 84 urte.
Juliana Berardi Elox. Martxoak 7, 81 urte
Luciano Sanz García. Martxoak 11, 87 urte
Arsenio Sánchez Alonso. Martxoak 12, 82 urte
Juana Elkororibe Lizarralde. Martxoak 21, 95 urte
Luis Txintxureta Etxebarriarteun. Martxoak 22, 53 urte
M. Concepción Hernández. Jacobo. Martxoak 25, 93 urte
Gregoria Arratibel Irausta. Martxoak 25
Iñaki Xabier Osinaga Agirre. Martxoak 25, 70 urte
Fernando Muñoz Herran. Martxoak 27, 53 urte
Josu Imaz Arzelus. Martxoak 28, 15 hilabete
Maximo Loiti Laskurain. Martxoak 29, 77 urte

APIRILA

Juanita Gabilondo Alzpiri. Apirilak 5, 85 urte
Maria Azkarate Elkor. Apirilak 6, 84 urte
Tomas Sebal Agirre. Martxoak 29, 85 urte
Marcelino Akizu Ormazabal. Apirilak 9, 77 urte
Elvira Iruegi Goikoetxea. Apirilak 10, 86 urte
Lidia Poza Poza. Apirilak 10, 63 urte
Maria Errasti Igarza. Apirilak 11, 86 urte
Domingo Ramirez Garcia De Andoin. Apirilak 13, 87 urte
Josu Oregi Aranburu. Apirilak 14, 75 urte
Teodoro Leturiondo Zierrega. Apirilak 14
Martin Manzanal Garcia. Apirilak 23, 89 urte
Ignacio Balzategi Salaberria. Apirilak 23, 71 urte
Maria Vega Biziola Velasco. Apirilak 24, 55 urte
Mari Tere Etxeberria Jauregi. Apirilak 24, 55 urte
Ramona Orbea Jauregi. Apirilak 28, 89 urte
Gabriela Bergaretxe Ibañe. Apirilak 30, 81 urte

MAIATZA

Mari Tere González Arias. Maiatzak 3, 29 urte
Niko Martínez Amurrio. Maiatzak 5, 51 urte
Imanol García Alberdi. Maiatzak 8, 27 urte
Luis Lasheras Ros. Maiatzak 8, 63 urte
Jose Mujika Telleria. Maiatzak 9, 66 urte
Clara Valor Merchan. Maiatzak 11, 51 urte
Jose Migel Lizarralde Gisasola. Maiatzak 8, 49 urte
Pablo Gallastegi Zabaleta. Maiatzak 15, 83 urte
Evaristo Albeniz Barragan. Maiatzak 16, 70 urte
Pilar Agirrezabal Lamariniano. Maiatzak 16, 82 urte
Antonia Madariaga Larrañaga. Maiatzak 27, 95 urte
Josefa Gorosabel Etxagibel. Maiatzak 28, 86 urte
Jose Elgarresta Mujika. Maiatzak 30, 67 urte

Alberto Gabilondo Alberdi. Maiatzak 30, 48 urte

EKAINA

Markos Berrio-Otxoa Azkonizaga. Ekainak 1, 73 urte
Kose Makazaga Aldai. Ekainak 1, 67 urte
Maria Natividad Iriarte Elkor. Ekainak 2
Ines Pérez Caamiña. Ekainak 1, 71 urte
Gabriel Ortigosa Merino. Ekainak 8, 77 urte
Miguel Barberena Imaz. Ekainak 10, 71 urte
Jose Maria Dulanto Unzeta. Ekainak 10, 79 urte
Felisa Bengoa Urrejola. Ekainak 17, 71 urte
Angela Gernandez Ferreras. Ekainak 19, 68 urte
Sor Maria Teresa Aranburu Orlaran. Ekainak 21, 87 urte
Juan Arenaza Iñarra. Ekainak 22, 89 urte
Mirari Umerez Zabaleta. Ekainak 23, 28 urte
Begoña Sánchez Molinero. Ekainak 26, 34 urte
Ruben Conde Sánchez. Ekainak 26, 8 urte

UZTAILA

Felix Muruamendiaraz. Uztailak 1, 84 urte
Maria Teresa Gantxegi Olabarria. Uztailak 2, 88 urte
Pedro Seminario Garralda. Uztailak 3, 72 urte
Jesusa Azkarate Jauregi. Uztailak 3, 65 urte
Antonia Moneo Arnaiz. Uztailak 7, 78 urte
Bitori Oñate Arrese. Uztailak 9, 87 urte
Leandro Ugarte Beitia. Uztailak 10, 78 urte
Maria Mendizabal Iribar. Uztailak 12, 81 urte
Francisca Gallastegi Ibarondo. Uztailak 19, 87 urte
Anparo Bañeza Seco. Uztailak 25, 83 urte
Maria Jauregi Lizarralde. Uztailak 28, 84 urte
Esteban Arietealanizbeaskoa Bengoa. Uztailak 29
Francisca Garitano Aldekoa. Uztailak 31, 86 urte

ABUZTUA

Maria Pilar Arietealanizbeaskoa. Abuztuak 3, 63 urte
Narcisa Berraondo Oregi. Abuztuak 9
Anastasio Sánchez Domínguez. Abuztuak 9, 85 urte
Joakina Ormazabal Azurmendi. Abuztuak 10, 96 urte
Fermín Alberdi Arabaolaza. Abuztuak 19, 69 urte
Juana Martínez Lejarrituri. Abuztuak 25, 91 urte
Julia Larrañaga Alistegi. Abuztuak 26, 69 urte
Felipe Garaikoetxea Gabilondo. Abuztuak 31, 64 urte

IRAILA

Maria Angela Gonzalez Beitia. Irailak 3, 64 urte
Mireia Santamaria Sanpietro. Irailak 11, umea
Albino F. P. Irailak 13, 47 urte
Maria Pilar Aranes Inza. Irailak 11, 86 urte
Ana Rot Camerut. Irailak 18, 72 urte
Ruth Bolinaga Agirre. Irailak 22, 34 urte
Prudencia Gabilondo Lete. Irailak 23, 90 urte
Markos Ibañe Amutxastegi. Irailak 23, 69 urte
Edurne Barrenetxea Arruti. Irailak 23, 12 urte
Juliana Azkarate Agirrezabal. Irailak 25, 85 urte
Isabel Aperribai Madinabeitia. Irailak 25, 62 urte
Eleuterio Elgero Losada. Irailak 28, 83 urte

URRIA

Martina Olañeta Zubiate. Urriak 4, 61 urte
Jose Olañeta Zubiate. Urriak 4, 57 urte
Maria Navas Agirrezabal. Urriak 5, 84 urte
Jose Maria Otazua Peña. Urriak 6
Serapia Alberdi Gantxegi. Urriak 7, 85 urte
Zorion Artea Murgiondo. Urriak 9, 10 urte
Julian Etxaniz Gantxegi. Urriak 9, 82 urte
Mari Kruz Solagaistoa Lizarralde. Urriak 10, 88 urte
Elisabet Dulanto Zabala. Urriak 14, 32 urte
Maria Angeles Sastigutxia. Urriak 19, 91 urte
Jose Maria Luizarizisti Iñarra. Urriak 20, 67 urte
Maria Arretxe Doniz. urriak 21, 90 urte
Juan Iturralde Galdos. Urriak 22, 83 urte
Palina Mardaras Madariaga. Urriak 29, 82 urte
Jose Osa Elorza. Urriak 30

AZAROA

Gotzon Mendibil Kortazar. Azaroak 4, 29 urte
Andres Osinalde Mujika. Azaroak 8, 72 urte
Eduvides Díaz de Tenza. Azaroak 9, 78 urte
Mausa Korkostegi Saizar. Azaroak 9, 40 urte
Leonidas Gutierrez Garcia. Azaroak 11, 75 urte
Vicente Biain Uriarte. Azaroak 12, 80 urte
Eusebia Agirre Idigoras. Azaroak 13, 93 urte
Karmen Estevez Saenz. Azaroak 15, 62 urte
Julian Larrañaga Etxeberria. Aroak 20, 65 urte
Purificación Horriño Rodríguez. Azaroak 22, 30 urte
Juan Garitano Lizarralde. Azaroak 27, 85 urte

ABENDUA

Emerenciano San Jose. Abenduak 3, 50 urte
Felisa Zabaleta Urzelai. Abenduak 3, 71 urte
Juan Jauregi Mujika. Abenduak 14, 69 urte
Juana Badiola Lete. Abenduak 15, 75 urte
Ziriaka Loidi Astigarraga. Abenduak 17, 81 urte
Juan Etxaniz Inza. Abenduak 26, 69 urte



Pix-Poleko kuadrila. 1935. Berrigara Lehiaketako lehen saria.


Urteko azken ale berezi honetara BERRIGARAREN bosgarren urteurrena ospatzeko antolatu dugun Erretratu Zaharren lehiaketa irabazi duen argazkia ekarri dugu. Erretratua Pix-Poleko kuadrilari 1935. urtean Espaloian ateratakoa da eta Juanito Errenterik aurkeztu du lehiaketara. 1935.eko Aratuzteetan ateratakoa da. Juanitok berak jarritako notatxoan jasotzen denaren arabera, garai hartan Karnabaletan San Martin plazan ardo zahagia jartzen zuen Udalak eta ardoa doan banatzen zen herritarren artean. Jendeak, debalde zela eta, mozkortu arte edaten zuen...

Argazkian agertzen diren guztien izenak ez dakizkigu, baina hona hemen batzuenak ezkerretik hasita:

Aurreko lerroan jarrita: Nemesio Bilbao, Pedro Sukalde, Martin Suchibe, Felix Bilbao, Perikillo eta Kiko.

Zutik: Egia, Manuela Garmendia, Noarbe, Antero ferrobiarioa "Guarda agujas", Kintana, Joseba Laborda, Pedro Albisua, Jacinto González, Jose Igartua, Faustino, Letona, Juan Torres eta Pako Lazkano

Argazkia: Juanito Errenteri



**GABON
HAUTAN ERE...**








*Luzen
Opari Donda
Berrigara*

Barrenkale, 27

IZENA EMAN AEK_n

AKULU EUSKALTEGIA Masterreka 13 behea eskuma Bergara ☎ 76 05 18




HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukalderako altzariak

Urte berri on!!